

# EUSKAL SENA (Auzolanean azterketa)

SER O GENIO  
VASCO, INSTINTO O  
SENTIDO VASCO, O  
'EUSKAL SENNA'  
(un análisis en  
Auzolan)

*Editorea / Editor* Xabier Renteria-Uriarte.

*Ardurakideak / Responsables* Gabriel Vallin, Alex Zabaleta, Xabier Renteria-Uriarte.

*Auzolankideak / Auzolankides.* Bilkuretan eta sare-foroan / En Bilkuras y foro web: Rafael Konde, Urtzi Ihitza. Bilkuretan / En Bilkuras: Félix Rodrigo Mora, Agurtzane Lazkano, Aintzane Lazkano, Leire Saitua, Karmele Iribar. Sare-foroan / En foro web: Juan Inazio Hartsuaga, Josu Naberan, Odon Ulibarrena, Félix Zubiaga, Félix Placer. Zuzenketak eta ekarpenak / Correcciones y aportaciones: Xabier Odriozola, Danel Ibisate, Annemarie Lagarde, Guillermo Piquero. Antolatzailea / Organizador: Patxi Alaña.

Euskal hiztunek eta kultur eragileek nola sentitzen dute, gaur eta hemen, euskara eta euskal kultura? Horixe da hemen / larunbat honetan, Gernikan, aurkituko duzuna. *Gakoa Euskal Sena izango da.*

*Senak diñotsu hori ba!* Gure amonek sarri esandakoa da. Hizkuntza europarrek abereen berezko joera automatikoak ‘instintu’ hitzarekin izendatu ohi dute. Euskaraz ere, hori dugu *sena*. Baina hedatuagoa dugu esanahia eta erabilera.

Bada zerbait gure baitan, bizitzan hartu behar diren ekimenekiko eta jokaerekiko erabat zentzuzkotzat, zilegizat, egokizat eta bidezkotzat jotzen duguna. Hori dugu jendearengan *sena*.

Baina berezkoa dugun *sena* hori desberdin sentitzen da kultur desberdinetan. Herri bakoitzak baditu bere ukituak, bere ñabardurak, eta bere enfasiak. Ta euskaldunok ez gara salbuespena.

Konturatzen ez bagara ere, euskaldunoi *senak* zerbait ‘erakusten’ edo ‘argitzen’ digunean, gure *euskal sena* da hori.

*Euskal Sena*, beraz, euskaldunok gauzak nolakoak diren ulertzeko duten berezko era da, gure munduikuskerara eta jokamoldeak islatuz. Euskaran, eredu sozialetan eta beste kultur espresioetan antzeman daiteke.

*Euskal Sena Taldea* Euskarak eta Euskal Kulturaren agerpenek atzean duten *sena*, izaera eta mundu-ikuskerara azalertzeko sortu zen. Jendarte ekimenetan nabarmendu diren eragileek osatzen dute, beste interesatuekin bildurik, *Biltzarre* plataformaren baitan.

Asmoa ahazturik dugun gure herriaren *sena* eta izaera mahai-gaineratzea da, etorkizuneko praktika kontzienteetarako laguntza gisa.

Hemen bere *II. Bilkuran* (Gernika, 2019) adostutako ekarpenen gainean eratutako lana duzu. *Lan Dokumentua* eztabaidatu zen han, *I. Bilkuran* (Usurbil, 2018) eta, aurretik, *Biltzarre*

¿Cómo sienten los vascos y los agentes sociales el euskera y la cultura vasca hoy y aquí? Eso es lo que encontrarás aquí / este sábado, en Gernika. La clave elegida es la *Euskal Sena*.

*Senak diñotsu hori ba!* Indicando que ‘eso te lo dice el instinto interior’. Lo decían a menudo nuestras abuelas. Las lenguas europeas denominan a las tendencias y reacciones automáticas de los animales con el término de ‘instinto’. En euskara, también, eso es *sena*. Pero tenemos un significado y usos más amplios.

Hay algo en nuestro interior que consideramos de total sentido común, lícito, apropiado y justo, como guía de las acciones y actitudes a tomar en la vida. Eso es la *sena* en la gente.

Pero esa *sena*, entre los seres humanos, se siente diferente en cada cultura. Cada pueblo tiene sus tonos, sus matices y sus énfasis. Y los vascos no somos excepción.

Aunque no nos percatemos, cuando a los euskaldunes algo se nos ‘muestra’ o ‘clarifica’ por esa *sena* humana, es nuestra *euskal sena*.

*Euskal Sena*, por tanto, es la forma natural y directa de saber cómo son las cosas que tiene la gente vasca, reflejando su cosmovisión y actitudes. Y subyace en el euskera, en los modelos sociales y en otras expresiones culturales.

El grupo *Euskal Sena Taldea* se creó para explicitar cuál es la forma de ser, la cosmovisión y el ‘genio’ de pueblo que guardan el euskera y las otras manifestaciones culturales de los vascos. Lo forman agentes destacados en iniciativas sociales, junto con otra gente interesada, dentro de la plataforma *Biltzarre*.

La intención es sacar a la luz la tan olvidada *Euskal Sena*, es decir, el ser, genio o ‘instinto’ del pueblo vasco, como apoyo a su práctica consciente futura.

Aquí se presenta el trabajo realizado sobre las aportaciones acordadas en la *II. Bilkura* o sesión (Gernika, 2019). Se debatió allí un *Documento de Trabajo* que reunía en forma ordenada las diferentes contribuciones realizadas en la *I. Bilkura* o sesión

plataformako sare-foroan jasotako ekarpenak biltzen eta ordenatzen zituena.

(Usurbil, 2018) y, previamente, en el foro de la web de la Plataforma *Biltzarre*.

Auzolanean eraikitako Lana da beraz, ezinbestean izan behar zen moduan, gure *Euskal Senari* jarraiki.

Es por tanto un Trabajo construido en auzolan, tal como tenía que ser, de acuerdo con nuestra *Euskal Sena*.

Politikoki zuzenak diren oskoletatik at, herri lanetan eskarmentua duen jende anitzak, bihotzez euskaltzaleak, gai horren atzean daudena zundatzen izan dira, bizitza, euskara eta herria nola sentitzen duten argitzeko.

Fuera de corsés políticamente correctos, gente diversa, con años de trabajo popular a sus espaldas y con intereses en estos temas, profundos euskaltzales de a pie, han dedicado sesiones y energías a desentrañar y debatir *cómo sienten* la vida, el euskera y su propio pueblo.

Proiektuaren zati honetan, nire lana editore gisa egiten den ohikoa, alegia, konglomeratu gisa irtengo den liburu batean bildutako artikulua jasotzea eta koordinatzea. Taldera iritsi nintzenez, helburuak jadanik definiturik zeuden, eta lehen proposamenak bidalirik. Beraz, antolaketa eta bukaera lanak egin ditut.

En esta fase del proyecto, mi trabajo como editor no ha sido al uso, es decir, recogiendo y coordinando artículos que se agrupan en un libro a modo de conglomerado. Llegué al grupo cuando sus objetivos estaban ya definidos, a la par de las primeras propuestas. Y me ha tocado a mí la ordenación, estructuración y finalización.

Hasierako zein ondorengo ekarpenak ordenatu ditut, bizkarrezur berean. Atalen arteko ari batekin baina halaber, horrela espero dut, atal bakoitzaren barnean koherentzia tematikoa zainduz. Ideiak errepikatuak sintetizatu ditut, eta argumentu hutsuneak bete. Azken forma bat eman diogu elkarrekin eta ... Hona hemen azkenik. Euskal Sena gairako gonbidapen xume bat.

He ordenado las aportaciones, tanto iniciales como posteriores, en una misma médula vertebral. Con un hilo conductor entre secciones pero, también, así lo espero, con coherencia temática dentro de cada sección. He sintetizado las ideas coincidentes, y he rellenado los huecos argumentativos. Le hemos dado entre todos una forma final y... Aquí lo tienes, por fin. Una invitación humilde a la *Euskal Sena*.

Egongo, ta eskerrik asko!

¡Estamos (pronto juntos), y gracias!

On egin!

On egin! ¡Qué aproveche!

Xabier Renteria-Uriarte  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)  
<https://ehu.academia.edu/XabierRenteriaUriarte>

<b>0. EUSKAL SENA .....</b>	<b>1</b>
<b>. 0. EUSKAL SENA: SER Y GENIO VASCO, INSTINTO O SENTIDO VASCO.....</b>	<b>1</b>
<b>1. ZER GARA GU ETA ZER DA MUNDUA? .....</b>	<b>5</b>
<b>. 1. ¿QUÉ SOMOS Y QUÉ ES EL MUNDO? .....</b>	<b>5</b>
AMALURRA ETA HUTSA.....	5
. AMALUR Y HUTSA .....	5
ETXEA.....	9
. ETXEA O 'CASA' .....	9
AMATASUNA ETA EMETASUNA .....	10
. MATERNIDAD Y FEMINEIDAD .....	10
<b>2. NOLA JOKATU BIZITZAN? EUSKALDUN PERTSONA EDO NORBANAKOA .....</b>	<b>12</b>
<b>. 2. ¿QUÉ ACTITUDES TOMAR ANTE LA VIDA? EL INDIVIDUO EUSKALDUN .....</b>	<b>12</b>
NOLA ERAIKITZEN DA BIZITZA?.....	13
. ¿CÓMO SE ERIGE LA VIDA? .....	13
NOLA JARDUN BEHAR DA EUSKAL NORBANAKOA EXISTENZIAREN SAKONAREKIKO? .....	14
. ¿CÓMO DEBE ACTUAR EL INDIVIDUO VASCO ANTE LA PROFUNDIDAD DE LA EXISTENCIA? .....	14
NOLA JOKATU NATURAREKIN? NOLA IZAN EUSKALDUNA MUNDUAN? .....	21
. ¿CÓMO ACTUAR ANTE LA NATURALEZA? ¿CÓMO SER VASCO EN EL MUNDO? .....	21
NOLA JOKATU JENDARTEAREKIKO? BAIKORTASUNA, ELKARREKIKOTASUNA ETA ZINTZOTASUNA.....	26
. ¿QUÉ ACTITUDES TOMAR ANTE LA SOCIEDAD? AFIRMATIVISMO, INTERACTIVIDAD Y HONESTIDAD.....	26
<b>3. ZEIN DA GURE GIZARTE EREDUA? GU TA GUTARRAK .....</b>	<b>33</b>
<b>. 3. ¿CUÁL ES NUESTRO MODELO DE SOCIEDAD? GU ETA GUTARRAK, NOSOTROS Y LOS NUESTROS .....</b>	<b>33</b>
GIZARTEA ETA EKONOMIA EZ DIRA GAUZA TRISTEAK NORBANAKOEN KONTSUMORAKO, JARDUERA JOSTAGARRIAK DIRA, NORBANAKOEN JENDARTEARI EMANIKOAK.....	33
. LA SOCIEDAD Y LA ECONOMIA NO SON COSAS TRISTES PARA CONSUMO DE LOS INDIVIDUOS, SINO ACTIVIDADES GOZOSAS OFRECIDAS POR LOS INDIVIDUOS A SUS GRUPOS SOCIALES .....	33
AUZOLANAK, BATZARRAK ETA KOMUNALAK DIRA EUSKAL SOZIOEKONOMIAREN ARDATZAK .....	37
. AUZOLAN, BATZARRES Y COMUNAL SON LOS EJES DE LA SOCIOECONOMÍA VASCA .....	37
ZUZENBIDE PIRINIARRAK BERMATURIKO DEMOKRAZIA ZUZENA DIRA AUZOLANAK, BATZARREK ETA KOMUNALAK.....	42
. DERECHO PIRENAICO QUE GARANTIZA ESTA DEMOCRACIA DIRECTA DE AUZOLANES, BATZARRES Y COMUNALES. ....	42
ATXIKIMENDU ETA BURUJABETZA ERRESISTENTZIAK EZINBESTEKOAK IZAN DIRA EUSKAL SENA BIZIRAUTEKO. ....	44
. LA IDENTIDAD Y LA SOBERANÍA, CON SUS LUCHAS, HAN SIDO INEXCUSABLES PARA LA SUPERVIVENCIA DE LA EUSKAL SENA .....	44
<b>4. EUSKALSENDUNAK .....</b>	<b>51</b>
<b>. 4. LOS EUSKALSENDUNAK.....</b>	<b>51</b>
EUSKALSENDUNA EUSKAL SENA ONARTZEN ETA PRAKTIKATZEN DUENA DA, BAI KONTZEPtualKI ETA BAI BIZITZAN ETA ESPERIENTZIETAN.....	51
. EUSKALSENDUN ES QUIEN ACEPTA Y PRACTICA LA EUSKAL SENA, TANTO A NIVEL CONCEPTUAL COMO DE VIDA Y EXPERIENCIAS.....	51
EUSKAL SENA ETA EUSKALSENDUNAK HEDATZEA ERRONKA BEREZIA DA .....	53
. POTENCIAR EL SER O GENIO VASCO Y LOS EUSKALSENDUNAK ES UN DESAFÍO ESPECIAL .....	53
HERRI BATEN SENA ETA EUSKAL SENA; KONTZEPtuAK .....	59
. SENA DE PUEBLO Y EUSKAL SENA; LOS CONCEPTOS .....	59

<p><b>0. EUSKAL SENA</b></p>	<p><b>. 0. EUSKAL SENA: SER Y GENIO VASCO, INSTINTO O SENTIDO VASCO.</b></p>
<p><b><i>Sena</i> bizitza ulertzeko dugun berezko jakinduri intuitiboa da.</b></p>	<p>.</p>
<p><i>Senak diñotsu hori ba!</i> Gure amonek sarri esandakoa da. Hizkuntza europarrek abereen berezko joera automatikoak ‘instintu’ hitzarekin izendatu ohi dute. Euskaraz ere, hori dugu <i>sena</i>. Baina hedatuagoa dugu esanahia eta erabilera.</p> <p>Euskaldunok gizakien joera hori izendatzeko eta ulertzeko <i>sena</i> hitza erabiltzen dugu. Sena edo instintua abereek dute, beraien era berezietan. Baina gizakiok ere badugu, gure eratan.</p> <p>Abereengan “berezko joera indartsua, sortzetikakoa, ez ikasia” da. Euskaldunok gizakiengan ere oso presente dakusagu <i>sen</i> hori, “gogoetaren, esperientziaren edo heziketaren ondorio ez den berezko aritze” baten eran. Euskaraz, adibidez, hitz hori “intuizioa” deitzeko erabiltzen da sarri.</p> <p>Eta euskaraz ez da hori nabarmentzeko bakarra. <i>Senak</i> zentzu baikorra du, “zentzu ona” eta “gogo oreka” izendatuz (gakotxen arteko definizioak <u>Sarasolarenak</u> dira).</p> <p>Demagun adibidez, zerbait horrela dela eta ona dela esateko norbaitek honela argudiatzen duela:</p> <p>Hori senak diotsu ba!</p> <p>Honakoa adieraziz:</p> <p>Ez al duzu ikusten ba! Berez dugun senak edo zentzu intuitiboak esaten dizu hori ba!</p> <p>Ziur asko jatorri bereko hitzak dira ‘sena’ eta ‘zentzua’, erabilera hauek ikusirik. Baina orain azpimarratzekoa zera da.</p> <p><b>Euskaldunoi <i>senak</i> zerbait argitzen digunean, gure <i>euskal sena</i> da hori.</b></p> <p><i>Senak</i>, euskaraz, <i>berez</i> esaten digu zerbait egokia eta zuzena dela. <i>Sen</i> hori azalezina eta erabatekoa delarik ere, berari esker gauzaren bat <i>zinez egiazkoa</i> dela sentitzen dugu, ‘horrela da eta kitto’.</p> <p>Dena den, badakigu kulturak oso anitzak direla munduan. Eta kultur batentzat <i>senekoa</i> dena, beste batentzat ez da</p>	<p><i>Senak diñotsu hori ba!</i> Indicando que ‘eso te lo dice el instinto interior’. Lo decían a menudo nuestras abuelas. Las lenguas europeas denominan a las tendencias y reacciones automáticas de los animales con el término de ‘instinto’. En euskara, también, eso es <i>sena</i>. Pero tenemos un significado y usos más amplios.</p> <p>.</p>

inolaz ere horrela. Beraz, *sen* hori kulturala da. Gure *sena* zera da, euskaldunok dugun *sen berezia*.

Euskaldunoi *senak* zerbait argitzen digunean, gure *euskal sena* da hori argitzen diguna. Eta *euskal sen* hori zentzu baikorrean eta on-hutsean sentitzen dugu; zuzena, zintzoa eta egoki gisa.

Gure auzolankide batek honela erantzun zuen:

- Zer da zuretzat euskal sena?
- Jaten ari garanean, besteei zati hoberenak utzi; eta lan egiten ari garenean, besteek baino gehiago emateko prest egon.

Zehatz mehatz laburbilduz. Gizakien *sena* kulturala izanik, euskaldunon *sena euskal sena* dugu.

Zertan datza Euskal Sena, beraz? Zein kultur iturri eta ingurunean ulertu behar dugu?

### *Zergatik Euskal Sena?*

*Euskal Sena* herri gisako euskal izaera da, euskaldunen izaera, instintu gisa iretzen zaiguna barrutik.

Ez du Natura eta beste pertsonak menderatzeko lehiatzen. Ez du emakume edo emakumezkoen menpekotasuna bilatzen. Ez ditu esklabo adimenak sortzen, ezta esklabo herriak ere. Erabat desberdina da.

Euskal Senak Bizitza zaintzen du, eta Lurrari atxikitzen gaitu. Ikuspuntu *matrista* edo *matrilineala* ardatz duela, Naturaren amatasuna eta feminitatea islatzen ditu, bizitzaren alderdi zaintzailea dena.

*Euskal Senak* norbanakoari *Burujabe* bezala auto-eraiki dadin laguntzen dio, hots, buruaren jabe, baina besteekiko begirunez eta zaintzaz. Gerlariaren eta esklaboaren logikaren aurka.

*Euskal Senak*, horrela, Euskal Herriari *Burujabe* auto-eraikitzen laguntzen dio, buruaren jabe eta beste herriekiko begirunez, hori izan delarik, hain zuzen, atzerriko estatuen zapalkuntza azpian mendeen zehar bizirik irautea ahalbidetu diona. Herri-estatuen gerlarien eta herri-estatugabeen esklabuen logikaren aurka.

*Euskal Sena* edozein menpetasun sistema pertsonaletik edo kolektibotik kanpo, edo bere eraginik gabe, bizitzea da, gaur egungo sistema kapitalistaren eta bere estatu zapaltzaileen kasuetan bezala.

### *¿Por qué la Euskal Sena?*

*Euskal Sena* es el Ser vasco, algo que nos sale de dentro, como por instinto.

No compite por dominar la Naturaleza y a las otras personas. No somete a la mujer ni a lo femenino. No genera mentes esclavas, ni pueblos esclavos. Es totalmente diferente.

*Euskal Sena* cuida la Vida, y nos entronca en la Tierra. Con un enfoque *matrista* o *matrilineal* reflejando la maternidad y feminidad de la Naturaleza, que es vertiente cuidadora de la Vida.

*Euskal Sena* ayuda a que la persona se auto-construya como *Burujabe*, es decir, dueña de sí misma, pero en respeto y cuidado hacia las demás. Contra la lógica del guerrero y del esclavo.

*Euskal Sena* ayuda, con ello, a que el pueblo vasco se erija como *Burujabe*, dueño de sí y en respeto los demás pueblos, que es lo que le ha permitido sobrevivir tras siglos bajo la opresión de estados extranjeros. Contra la lógica de pueblos-estado guerreros y pueblos-sin-estado esclavos.

*Euskal Sena* es vivir fuera de, o sin ser afectado por, cualquier sistema de dominación personal o colectivo, como el actual sistema capitalista y sus estados opresores.

*Euskal Senak* euskal *Gizabidea* edo humanismoaren izaera da. Soiltasunaren balioa, hitzarena, taldea behatzearena.

Euskal Sena espainolen eta frantsesen aurretik bazen, godoen eta frankoen aurretik, erromatarren eta zeltiarren aurretik ere. Indoeuropar guzti horien aurretik. Baina izaten jarraitu zuen, testuinguru historiko bakoitzera egokiturik. Bere aukera noiz itzuliko zai eta adi.

*Euskal Senak*, euskaldunen modura, kultur zanpatzaile eta patriarkal horiek zapuztu duten jendartearen aldea aldarrikatzen du, etengabe saiatzen dena entzuna izaten.

Antzinako zerizana ezagutu eta berreskuratzea dugu, baina garai berrietara nola moldatzen denari adi, dugu erronka.

Arrainek ez dute bizileku duten ura ikusten, eta euskaldunek ez dute bizigai duten *Euskal Sena* ikusten.

Ez dira horren jakitun. Ez gara horren jakitun.

Memoria hau lapurtu eta hil digutelako. Inkisizioa hori erretzen hasi zen. Ez zuena 'zenbait sorgin hil'. *Euskal Senaren* transmisio katea mozten hasi zen, hori mantentzen eta ugaltzen zuten emakume jakintsuen ahotsa moztuz.

Ondorengo zapalkuntzak ez dira txikiagoak izan. Eta, gaur egun, gure alderdi naturala zapaltzen dutenak, jakin gabe, gu geu gara.

Baina *Euskal Sena* euskal inkontziente kolektiboan fosilizaturik mantendu zen.

Eta, horregatik, bere bidez bizi gara, jakin gabe.

Konzienteagoa egin nahi dugu. Hori haragia bihurtzen zutenen arnas bera arnasten dugula jakin eta sentitu.

Gizarte modernoa bakardadean hiltzen delako. Baina *Euskal Senak* zoriontsu egiten gaituen talde eta kolektiboetan txertatzen gaitu, eta gure alde atseginenarekin konektatzen gaitu.

Euskeraz hitz egitean, gordetzen duen *Euskal Sena* gorpuzteak eta berbizitzaiek gogobetetzen nau.

*Amalur* benetan zer den eta zer garen ulertzeak, denaren eta zure parte naizena sentitzeak, betetzen nau, *Euskal Sena* ez baita kontzpetu hutsa.

Jakin badakit zer gertatzen den benetan, poteatzen edo bazkalondoan gabiltzalarik barre egiten dugunean, edo

*Euskal Sena* recoge el estilo del *Gizabidea* o humanismo vasco. El valor de la simplicidad, de la palabra, de velar por el grupo.

*Euskal Sena* era antes de españoles y franceses, de godos y francos, de romanos y celtas; de todos ellos, los indoeuropeos. Pero siguió siendo, adaptada a cada contexto histórico. Atenta a cuándo retornaría su opción.

Porque *Euskal Sena* refleja, a lo vasco, la vertiente humana aplastada por esas culturas impositivas y patriarcales, que siempre pugna por ser escuchada.

Conocer y recuperar la esencia antigua, pero atentos a cómo se revitaliza en los tiempos nuevos, es el desafío.

Los peces no ven el agua en la que viven, y los vascos no ven la *Euskal Sena* por la que viven.

Ellos no son conscientes. Nosotros no somos conscientes.

Pues nos han arrebatado y matado esta memoria. La comenzó a quemar la Inquisición. Que no 'mató unas cuantas brujas'. Comenzó a cortar la cadena de transmisión de la *Euskal Sena*, cortando la voz a las sabias que lo guardaban y reproducían.

Las opresiones posteriores no han sido menores. Y ahora, quienes aplastan, sin saberlo, nuestra vertiente más natural, somos nosotros mismos.

Pero la *Euskal Sena* quedó fosilizada en el subconsciente colectivo vasco.

Y por ello, vivimos a través de ella, sin saberlo.

Queremos hacerlo más consciente. Saber y sentir que respiramos el aliento de aquellas que lo hacían carne.

Porque la sociedad moderna muere en soledad. Pero la *Euskal Sena* nos entronca en los grupos y colectivos que nos hacen felices, y nos reconecta con nuestra vertiente más gratificante.

Cuando hablo euskera, siento la satisfacción de sentir y revivir la *Euskal Sena* guardada en ello.

Satisfacción de entender qué es en realidad *Amalur* y qué somos nosotros, y cómo formo parte de todo y de ti, porque *Euskal Sena* no es un mero concepto.

Soy consciente de qué ocurre en realidad cuando poteamos o nos sentamos a la sobremesa y reímos, o

mendira igotzen garenean, edo makil dantza dantzatzen dugunean, edo *Ator ator* abesten dugunean.

Barruan daridan esne eta eztizko urmaela da *Euskal Sena*, lasaia eta gozoa, so egin diezaiodan eta sentitu dezadan zai.

Biharko ondorengoak berbizitzen ditut, atzoko arbasoak berbizitzen ikasi dudalako, eta betea sentitzen naiz lotura gisa.

Gizakiaren alderdi sinpleenaren eta primitiboenaren euskal forma besterik ez da *Euskal Sena*. Baina ahaltsuena eta sortzaileena da.

Jendea den bitartean sena izango da, eta euskaldunak diren bitartean euskal sena izango da.

*Ator, ator, neskak eta mutilak, etxera, Euskal Senara.*

*Euskal Senak ez baitizu ezer esaten, ez bada Euskalduna naiz eta harro nago!*

### *Zer duzu hemen, lagun?*

Auzolanean burutu dugun lan honek bi helburu nagusi du:

- . Batetik, iturri desberdinetatik Euskal Sena dei dezakegun munduikuskera eta bizitza-ikuskera hori zehaztea.
- . Bestetik, gizaldietan pairatu dugun adimen kolonialismo bortitza eta gero, gure herrian *Euskal Sendunak* apaltasunez eta harrotasunez ahalbidetzea eta bultzatzea. Euskal Herrian zein atzerrian, hots, Ebro eta Adur ibaietatik haratago (garai hauetan).

Erronkak motibatzen bazaitu, jo aurrera (laugarren atalean azaldurik duzun egitura honi jarraiki):

. Interesen arabera, jarri arreta 1., 2., eta 3. ataletan:

...1.ak senaren ardatza kontsidera daitekeen munduikuskeraren funtsa erakusten du, hain zuzen, lehen galdera existentzialari erantzunak (zer gara gu eta zer da mundua?). Zerbait abstraktua eta desmotibagarri gerta dakizuke, baina ulertzen lagunduko dizu, gerokoaren mamiia delako. Hala ere, interes handirik sortzen ez badizu, jo...

...2.ra, euskaldun pertsona edo norbanakoa zein dan definitzen du. Hots, aurreko munduikuskera zein

subimos al monte, o bailamos la *makil dantza*, o cantamos *Ator ator*.

*Euskal Sena* es un riachuelo de leche y miel que me fluye por dentro, calmo y gozoso, esperando a que la mire y la sienta.

Revivo en mí a nuestros descendientes del mañana, porque he aprendido a revivir a los ancestros del ayer, y me siento pleno siendo el conector.

*Euskal Sena* es sólo la forma vasca de la vertiente más primitiva y simple del ser humano. Pero es la más potente y creadora. La que no morirá, aunque muera su forma vasca.

Mientras haya seres humanos, existirá la Sena. Y mientras haya euskadunes, existirá la Euskal Sena.

*Ator, ator, neskak eta mutilak, etxera, Euskal Senara.*

Pues *Euskal Sena* no te dice otra cosa que no sea *Euskalduna naiz eta harro nago!*

### *. ¿Qué encontrarás aquí, lagun?*

Este trabajo construido felizmente en *auzolan* tiene dos objetivos principales:

- . Determinar la cosmovisión y visión de vida que podemos llamar Euskal Sena, es decir, Ser o Genio Vasco, desde fuentes diferentes.
- . Después del violento ‘colonialismo de mentes’ que hemos experimentado por siglos, ayudar y promover a los *Euskal Sendunak*, o personas que asumen y practican el *Ser o Genio Vasco*. Tanto en el País Vasco como en el extranjero, esto es, (en esta época) más allá del Ebro y del Adur.

Si el desafío te motiva, tira para adelante (siguiendo esta estructura que se argumenta en la cuarta sección):

. Dependiendo de tus intereses, atiende a las secciones 1º, 2ª y 3º:

... 1º Está dedicada al eje esencial de un ‘ser’ o ‘genio’ o ‘sena’, la primera pregunta existencial de una cosmovisión (¿qué somos y qué es el mundo?). Puede ser algo abstracto y descorazonador, pero te ayudará a entender más luego, porque es su esencia. Pero si no te genera mucho interés, vete a...

... 2ª define a la persona vasca, al individuo esencial vasco. Es decir, que describe qué tipo de individuo



norbanako motak islatzen duen derakus. Hori ere hurrenaren koska da,

...3.ak euskal gizartea nola eraikitzen den aztertzen du. Euskaldun norbanako horien gainean eta beragana, jakina.

. Ikerketa honen oinarri historikoetan eta metodologikoetan interesik bazenu, kontuan har 4. atala ere.

. Baina ez zokoratu 5.a! Nola izan euskalsenduna?

refleja la anterior cosmovisión. Ello es a su vez la base de lo siguiente,

... 3º muestra cómo se construye la sociedad vasca, desde y hacia este tipo de individuo esencial vasco, por supuesto.

. 4º muestra los fundamentos históricos y metodológicos de esta investigación, si estás interesado en ello.

. ¡Pero no dejes de lado la sección 5! ¿Cómo ser un verdadero euskalsendun?

## 1. ZER GARA GU ETA ZER DA MUNDUA?

Zer gara gu eta zer da mundua? Nola ulertzen dogu gure izaera eta inguruan antzematen dugun izadiarena? Herri baten sena zehazten hasteko modu desberdinak daude, baina existentziaren izaerari buruz pentsatzen dena izan liteke guztiaren hasiera.

Beste hitzetan, kultur senen oinarrian bere munduikuskera lekutu daiteke. Eta munduikuskeraren ardatza, bidenabar, gizakiaren egonezin oinarrikoenak diren ‘galdera existentzial’ gisa ikusi izan da. Lehena honakoa kontsideratzen da: Nor gara gu? (Nondik gatoz? eta Nora goaz? itaunek jarraiturik). Galdera ontologiko bat da, hau da, errealitatearen zerizan edo esentziari buruzkoa.

*Euskal Sena* gaian, horrela, gu eta mundua zer garan erantzutea da erronka. Antzinako kulturetan belaunaldiz mantendu diren bi dimentsiok islatzen zuten hori: mitologia eta hizkuntza. Bestelako iturriak ere erabili daitezke. Has gaitezen.

### AMALURRA ETA HUTSA

Euskal Mitologian errealitatea edo ‘mundua’ Lurrarekin parekatzen da. Beragan Lurrak, Lurraren barnekaldeek, Lurraren gorpuzte edo pertsonifikazioek dute garrantzia. Eta bere zerizana edo arima nagusia emakumezkoa interpretatzen da: Mari, Maia, Dama, Saindia, Anderea... Ildo horri jarraiki, argudiatuko dugun bezala, zer gara gu? Amalurra gara, Naturaren manifestazio bat besteen artean, besterik ez.

Bestalde, euskarak badu izaerak, zerizanak edo esentziak definitzeko modu berezi bat: hutsaren bidez. Zerbait esentziala edo puroa dela esateko ‘hutsa’ dela diogu. *Kafe hutsa nahi dut. Pertsona hori on hutsa da.* Eta abar. Amalurra gara, beraz, baina Amalurraren azpian eta gure

## . 1. ¿QUÉ SOMOS Y QUÉ ES EL MUNDO?

¿Qué somos nosotros y qué es el mundo? ¿Cómo entendemos nuestra naturaleza y la de la realidad que percibimos y en la que vivimos? Hay diferentes maneras de comenzar a concretar el Ser o Genio de un pueblo, pero el comienzo de todo puede ser lo que se piensa acerca de la naturaleza de la existencia.

En otras palabras, en la base del Ser o Genio de una cultura de un pueblo puede situarse su cosmovisión. Y en las cosmovisiones, a su vez, se ha visto como eje a las denominadas como ‘preguntas existenciales’ de la humanidad. En ellas, la primera suele ser considerada: ¿Quiénes somos? (seguida por ¿De dónde venimos? y por ¿A dónde vamos?) Es una pregunta ontológica, es decir, sobre la esencia y fundamento de la realidad.

En el tema de la *Euskal Sena*, así, responder a qué somos nosotros mismos y cómo es el mundo resulta ser el desafío. En las culturas antiguas, dos dimensiones que se conservan entre generaciones lo reflejaban: la mitología y el lenguaje. También se pueden utilizar otras fuentes. Comencemos.

### . AMALUR Y HUTSA

En la mitología vasca, la realidad o ‘mundo’ se corresponde con la Tierra. Se da, en ella, la importancia a la Tierra, a los interiores de la Tierra, a la personificaciones de la Tierra. Y su ser o alma principal es interpretada por mujeres: Mari, Maia, Dama, Señora... Siguiendo ese hilo, como argumentaremos, ¿qué somos nosotros? Somos Amalur o Madre Tierra, una manifestación de la Naturaleza entre otras; sólo eso.

Por otro lado, el euskera tiene una forma especial de definir seres o esencias: según el vacío. Para decir que algo es esencial o puro, que nos aparece en sí mismo, sin mácula o tacha de otras cosas, decimos que es o está ‘vacío’, que es o está ‘vacío de sí mismo’. *Kafe hutsa nahi dut*, ‘quiero un café solo’. *Pertsona hori on hutsa da*, ‘esa persona es integralmente buena’. Y así

azpian, *Hutsaren* misterioa dago, edo *Hustasunarena*, beste filosofietan esaten den bezala.

Gu Amalurra (edo Amalurraren parte) eta, azken batetan, Hutsa (edo hutsak) gara. Esaldi soil batean.

Eta gure izaera eta zerizana Lurraren eta Hutsaren oinarritzea ez dira mitologia eta hizkuntzako kasualitate soilak. Gure mitologiak eta euskarak gorderik duten altxor mirengarriak eta xarmagarriak dira, munduko filosofia existentzial sakonen zehaztapenak islatzen dituztenak eta, beraz, beraiekin parekatzen gaituztena.

Argudiatu ditzagun labur.

### *Gu, Amalurraren alaba-semeak eta espresio gara*

**Euskal Mitologiaren arreta indar naturalak dira, bere horretan harturik (obediencia, sumisio eta bildurrik gabe).**

Euskal mitologia 'ktonikoa' dela esan ohi da. Funtsezkoa da Lurra, gure errealitate gisa, eta ez da Lurraren haratago esentziarik edo irudirik. Ez da 'Zeru' urrun bat, eta ez dira han gure izeraren erreferentziarik: ez Jaungoikorik, ez aingerurik; ezta -beste muturrean- deabru eta demonio ezkorrik ere ez.

Lurraren gorpuzte edo irudi nagusia, Mari, Maia, Señora edo Dama, 'Jainkosa' deitzen dugu gaur egun, Baina, benetan, Natura osoaren 'indar', 'gorpuzte', edo 'irudi' gisa ulertzea askoz errealistagoa da. Ez baitu 'jainkosa' izen horrek dakarkigun izaera 'kanpokoa', gurekiko 'hurrunagoa'.

Mari gure artekoa da. Adibidez, badaude bera deitzeko eta bote lasterrean ondoan izateko formulak. Eta goiz batez esnatu eta, ezustean, berak landua dugu ortua.

Baina bestalde, Mari edozer da; naturaren forma desberdinetan eraldatua ikus dezakegu bere istorio anitzetan.

Mitologia indoeuromediterranean eta semitikoetan izakiek eta gauzek ez dute Jaungoikoa barnean, funtsez desberdinak dira. Euskal Mitologian, Amalurra/Mari edozer gauza da; beraz, edozer gauza da Amalurra/Mari.

sucesivamente. Así que somos Amalur, pero debajo de Amalur y debajo de nosotros, hay un misterio de 'Vacío' o 'Vacuidad', como se dice en otras filosofías.

Somos Amalurra (o parte de Amalurra) y, fundamentalmente, somos Vacío (o estamos vacíos). En una sola frase.

Y anclarnos a nosotros mismos en la Tierra y en el Vacío no son meras casualidades de la mitología y del idioma. Al contrario, son tesoros admirables y asombrosos que guardan nuestra mitología e idioma, y que reflejan las constataciones de las filosofías existenciales más profundas del mundo. Y que, por tanto, nos ponen a la par de ellas.

Argumentémoslas brevemente.

### *. Somos hijos y expresión de Amalur*

**. La atención de la mitología vasca son las fuerzas naturales, tomadas tal como son (sin obediencias, sumisiones ni miedos).**

Se dice que la mitología vasca es 'ctónica'. Es fundamental la Tierra, en el sentido de ser nuestra realidad, y no hay esencias o imágenes más allá de la Tierra. No hay un 'Cielo' lejano, y no hay en él referencias a alguna naturaleza ajena nuestra: ni Dioses, ni ángeles; ni tampoco, en el otro extremo, diablos o demonios negativos.

A la corporización o imagen principal de la Tierra, Mari, Maia, Señora o Dama, la llamamos hoy 'Diosa', pero es mucho más fiel a la visión vasca comprenderla como 'fuerza', 'cuerpo' o 'imagen' de la totalidad de la Naturaleza. No tiene la naturaleza ajena a nosotros del nombre de 'diosa', algo 'más allá' de nosotros.

Mari es de entre nosotros, y está entre nosotros. Por ejemplo, hay fórmulas muy sencillas para llamarla y tenerla ipso facto a nuestro lado. Y una mañana nos despertamos y observamos asombrados que, a saber por qué razón, nos ha trabajado el huerto.

Pero por otro lado, Mari es cualquier cosa; podemos verla transformado en las más diferentes y variopintas formas de la naturaleza en sus muchas historias.

En las mitologías indoeuropeas y semíticas los seres y cosas no tienen al Cielo o a Dios dentro de sí, son esencialmente diferentes. En la mitología vasca Amalurra/Mari es cualquier cosa; entonces, cualquier cosa es Amalurra / Mari.

Horrela, euskal mitologian ez da agertzen naturaz gaindiko izaki edo eremurik. Mari bera ez da naturaz gaindikoa, ezta gizakiek sortua ere. Natura da, hotsa, naturaren irudia, inolaz ez naturaz haratagokoa. Kristauek eta islamdarrek, ordea, naturaz gaindiko izakiak eta eremuak dituzte oinarri eta ardatz. Beste irudiak, lamiak eta abar, naturaren irudiak dira ere, ez naturaz gaindikoak (gain-natural edo 'sobrenaturalak').

Horren islak anitzak dira Euskal Mitologian. Adibidez, Marirekin 'hikaz' arituko gaitun. Eta edozein unetan deitu dezakegu, arao bakun baten bidez, gure ondoan ager dadin. Bere aurrean ez gara jesarriko, eta arpegira begiratuko diogu. Eskatzen digun bakarra berari lepoa ez ematea da.

Guzti hori erabat kontrajartzen zaio mitologia eta erlijio indoeuoparretan eta semitikoetan izaki jainkotiarrei eman behar zaien obedientziari, sumisioari eta beldurrari. Hartsuagaren hitzetan:

Nekazari gizarte neolitikokoak ez du jainkorik, "jainko" hitzaren adiera modernoan. Naturaren agerkari indartsu eta beldurgarrienak ez dira jainko haserre baten eskuan dauden armak, berezko eta noranahiko gertakari naturalak baizik eta horregatik lehortea denean edo oinaztarria ageri denean, horiek nola kontrolatu asmatzen saiatzen da, zer bekatu egin ote duen gogoetan hasi ordez.

**Naturaz haratago ez da ezer, eta gu bere agerpen bat gara, besteen artean.**

Naturaren edo Lurraren zikloak eta bizi-emankortasuna gogoz ospatzen duen kultura da hau, naturaz haratago eta gaindi existitu daitezkeen izakiak ahaztuz.

Naturaren aroak eta Lur bizi-emailea *ospatu* egiten dira. Marik natura oro har, eta zikloen bidezko bere bilakaera irudikatzen ditu. Ez du gizazko edota aberezko sakrifizioirik eskatzen. Jainko berekoi eta bortitz indoeuoparrek, aldiz, beraien nia gurtzea, beraien alde sakrifizioak egitea, eta beraiengatik gertara joatea exijitzen dute. A zein alde!

Esaldi batetan: Lurra-Izadia, eta Amalur-Mari bere pertsonifikazioa, guztia dira, besterik ez da. Gu, beraz, beraiek gara. Izadiaren beste manifestapen, espresio eta zati gisa, beste guztien artean.

Así, en la mitología vasca no hay seres o imágenes sobrenaturales. Mari en sí misma no es sobrenatural, ni tampoco es creada por los humanos. Es la Naturaleza, es decir, una imagen de ella; de ninguna manera algo más allá de la naturaleza. Los cristianos y los islamistas, sin embargo, fijan su atención en los seres e imágenes más allá de lo natural. No es el caso de los vascos (mitológicos). Sus imágenes, como las lamias, o los galtzagorris, etc. son propias de la naturaleza, no sobre-naturales.

Sus reflejos son diversas en la mitología vasca. Por ejemplo, con Mari hablaremos con los verbos en hika, tuteándonos. O podemos llamarla en cualquier momento, con un breve conjuro, para que aparezca junto a nosotros. Y en su presencia no nos sentaremos, y la miraremos a la cara. Lo único que nos pide es que no le demos la espalda.

Todo ello resulta completamente ajeno a la obediencia, sumisión y miedo que debemos tener hacia los seres divinos en la mitologías y religiones indoeuropeas y semíticas. En palabras de Hartsuaga:

La sociedad agricultora neolítica no tiene dioses, en el sentido moderno de la palabra "dios". Las manifestaciones más fuertes y temibles de la naturaleza no son las armas en mano de un dios enojado, sino fenómenos naturales y espontáneos, y por eso cuando hay sequía o rayos, se intenta adivinar cómo controlarlos, no se empieza a pensar qué pecado se ha cometido.

**. Más allá de la naturaleza no hay nada, y nosotros no somos más que una manifestación de ella, entre las demás.**

Esta es una cultura que celebra naturalmente los ciclos y la fecundidad de la Naturaleza o Tierra, olvidando posibles seres que puedan existir más allá y por encima de ella.

Se *celebran* los ciclos de la Naturaleza y la fecundidad de la Tierra. Mari representa a la Naturalez en general, y a su evolución cíclica. No requiere sacrificios humanos ni animales. Los egoicos u violentes dioses indoeuropeos, al contrario, exigen la adoración a sus yoes, que se sacrificaba por ellos, y que se haga guerra por ellos. ¡Vaya diferencias!

En una frase: la Tierra/Naturaleza y su personificación de Amalur/Mari, son todo, no hay nada más allá. Nosotros, por eso, somos ellas. No somos más que otra manifestación, expresión o parte de la Naturaleza, entre todas las demás.

**Euskal Sena, oro har eta existentziarekiko, naturalista eta animista da. Naturarekin bat egitea da erreferentzia.**

Oro har, eta existentziarekiko, *Euskal Sena* naturalista eta animista da. Aurrekoei jarraiki, eta herri baten mitologiak bere kultur munduikuskera eta sena islatu ohi dituzenez, askoren iritziz hau litzateke *Euskal Senaren* funtsa eta sintesia.

Kultura naturalista edo ‘animista’ delakoetan, egiazko jakinduria Naturarekin bat egitean datza. Auto-behaketa edo meditazio sakona eta txamanismoa ohiko bideak dira horretarako.

Antzinako naturalismo horren aztarnak ez ditugu bakarrik mitologian. Alta, euskaran ere ageri zaizkigu. Adibidez...

- . Ez dugu ‘gosea edo hotza daukat’ esaten, ‘gose ala hotza naiz’ eta ‘goseak ala hotzak nago’ baizik. Ez dugu ‘loa hartuko dut’ esango, ‘loak hartu nau’ baizik. Naturaren egoerak ‘ez ditugu’naren zantzuak dira, ‘beraiek gara’la baizik, eta berak ‘hartuak’garela. .
- . Bikotea ‘banatzean’ euskal senekoa dugu ‘bereizi gara’ esatea. Ez da nahastu gabe bildu egin zan zerbait, konglomeratu gisa, eta orain berriz banatzen dela bere aurreko egoerara itzultzeko. Benetako batura izan da, eta lorturiko berdintasun hori da, orain, bereizi egin dena.

Natura edo beraien aldeak ez dira guk *eduki dezakegun* zerbait, *gu garen* dimentsio handi bat baizik, gutaz *jabetzen dana*; hitz laburtuetan esateko

Naturalismo integrala da, ala animismo mota bat (Roslyn Frank). Naturalismo honek lan honetan azaleratuko ditugun alde asko azaldu dezake.

*Baina Gu eta Amalur, edozer eta edonor,  
Hutsak gara*

**Euskarak zerizanak edo esentziak definitzeko Hutsaren kontzeptua erabiltzen du.**

Euskarak izaerak, zerizanak edo esentziak definitzeko hutsaren kontzeptua darabil. Zerbait esentziala edo aratza dela esateko, bere berezkotasunean agertzen dela esateko, bestelako orban ala narrantorik gabea, ‘hutsa’ dela diogu. *Kafe hutsa nahi dut. Pertsona hori on hutsa da.* Eta abar.

**. La Euskal Sena es, en general y respecto a la existencia, naturalista y animista. La referencia es la unión con la Naturaleza.**

En general, y hacia la existencia, la visión del mundo vasca es naturalista y animista. Según lo anterior, y teniendo en cuenta que la mitología de un pueblo refleja su cosmovisión y su Genio, muchos creen que esta podría ser la esencia y síntesis de la *Euskal Sena*.

En las cultura naturalistas o ‘animistas’, la verdadera sabiduría reside en la unión de la Naturaleza. La auto-observación o meditación profunda y el chamanismo son medios habituales para ello.

Los restos de este antiguo naturalismo no están solo en la mitología. También aparecen en euskera. Por ejemplo ...

- . No decimos "tengo hambre o frío", sino "soy hambre o frío" y "estoy -de- hambre o frío" ('gose ala hotza naiz' eta 'goseak ala hotzak nago' baizik). No decimos 'voy a coger el sueño', sino 'el sueño me ha cogido' ('loak hartu nau'). Son síntomas de que no 'tenemos' a la naturaleza, sino que somos parte de ella, y 'poseídos' por ella.
- . En las separaciones de pareja, lo propio del sentido vasco no es 'separarse' o banatu, sino 'diferenciarse' o bereizi. No es algo que se unió sin mezclarse, como un conglomerado, y ahora se separa de nuevo para retornar a su estado separado anterior. Ha sido una unidad integral, y esa igualdad es la que ahora se diferencia.

La naturaleza y sus dimensiones no son algo que ‘podamos tener’, sino una dimensión nuestra que, en momentos determinados, se ‘posesiona de nosotros’; por decirlo en pocas palabras.

Es un naturalismo integral, o un tipo de animismo (Roslyn Frank). Este naturalismo explica muchos aspectos que surgirán en este trabajo.

*. Pero nosotros y Amalur, todo y todos,  
somos vacuidad*

**. El idioma vasco utiliza el concepto de vacío para definir seres o esencias.**

El euskera utiliza el concepto de vacío para definir la naturaleza, el ser o las esencias de las cosas. Para decir que algo es esencial o puro, para decir que aparece en sí misma, decimos que ‘es vacío’ o ‘está vacío de sí mismo’, sin ninguna otra influencia o mácula. *Kafe hutsa nahi dut.* Quiero un café solo (‘quiero un café vacío y a la vez puro’). *Pertsona hori on hutsa da.* Esta persona es integralmente buena (‘es vacía y a la vez llena de bondad’). Y así sucesivamente.

Hau ez da kasualitatea, ‘zerizana’ eta ‘purotasuna’ erakusten duten beste terminuek pareko portaera dutelako (esate baterako, ‘soil’ hitzak).

Zenbaiten ustez, Hutsari buruzko arreta euskalduna oso antzinatik letorkiguke. Oteizaren \_\_\_ eritziz, aro megalitikotik dator, eta euskal harrespil (edo cromlech) minimala hori litzateke: Hutsaren espresio bat. Geroago, interes hori hilarrietan mantenduko litzateke (Zarrabeitia, 2011). Eta, gaur egun, horrela mantenduko litzateke ere. Adibidez, Irurtzuneke bi haitz handiak aipatzean, Nafarroan, “donde en latín se ven Dos Hermanas, en euskera se ve Aitzbitarte, el hueco entre las dos rocas.” (Oteiza, zaila iturria).

**Zerizanak Hutsaren edo Hustasunaren gainean definitzeak filosofia existentzial erabat sakona du barruan.**

Amalurra gara, beraz, baina Amalurraren azpian eta gure azpian, gure benetako izaeran, Hutsaren misterioa dago. Eta honek oso filosofia existentzial sakona islatzen du.

## ETXEA

*Etxea, Amalurraren gorpuztea bezala bizitzen dugu.*

Etxea Amalurraren gorpuztea da euskaldunarentzat, Barandiaranek ondorioztatu bezala. Gu etxean txertaturik bizi gara baina, era berean, etxea Lurrean txertaturik dago, Amalurraren. Horrela, emozionalki, gu Amalurraren zati izatearen aurrepauzu naturala da gu etxearen zati sentitzea. Honek azalduko lituzke etxearen ideia inguruan emaniko hainbat bitxikeri:

- . Lehenik, Etxeak beren ingurune naturalean txertatu ohi ditugu. Etxearen izena, normalean, txertatzen den ingurunearen izena du. Horri esker, Lizarduikoak proposatu bezala, euskal etxearen izena bere kokaeraren ‘mapa’ gisa dihardu, bere kokaera erakusten. Etxe baten izena jakin, hara nola heldu jakin genezake, inguru hurbilean kokatuz gero.
- . Etxea bizidun gisa dakusagu. Etxeen izenak lehen pertsonan ditugu, eta etxeke zutoi eta egurrak gorputz atalekin izendatzen ditugu (Labat).
- . Gure burua aurkeztean ez dugu ‘nia’ aurkezten, gure etxea baizik, beste atal baten adibideekin zehazten dugun bezala.

Euskal sozioekonomian, geroago ikusiko bezala, Etxeak bere osotasunean irautea zen sendietan helburua, belaunaldiz belaunaldi.

Esto no es coincidencia, porque los otros términos que indican ‘esencia’ y ‘pureza’ tienen un comportamiento similar (por ejemplo, ‘soil’).

Para varios autores, la atención vasca al hecho del Vacío debe de ser muy antigua. En opinión de Oteiza, proviene de la era megalítica, y los cromlech tan minimales de nuestro entorno serían eso: una expresión del Vacío. Más tarde, este interés permanecería en las *Hilarri* o lápidas mortuorias (Zarrabeitia, 2011). Y actualmente, sería de la misma manera. Por ejemplo, en referencia a las dos grandes rocas de Irurtzun en Navarra “donde en latín se ven Dos Hermanas, en euskera se ve Aitzbitarte, el hueco entre las dos rocas.” (Oteiza, zaila iturria).

**. Definir las cosas por su Vacío o Vacuidad implica una filosofía profundamente existencial.**

Así que somos Amalur, pero en su interior y en nuestro interior, nuestra verdadera naturaleza es de Vacío. Y esto refleja una filosofía existencial muy profunda.

## . ETXEA O ‘CASA’

*. Vivimos a la Etxea o casa como corporización de Amalur.*

*Etxea* o ‘la casa’ es la encarnación de Amalur para los vascos, como concluyó Barandiaran. Vivimos entroncados en la casa familiar, pero, su vez, la casa familiar está entroncada en la Tierra, en Amalur. Así, emocionalmente, sentirnos parte de nuestro hogar es un parte natural de sentirnos parte de Amalur. Esto explicaría diversas curiosidades de visión vasca de la casa o *Etxea*:

- . En primer lugar, solemos incorporar las Etxeak o casa a su entorno natural. El nombre de la casa es, normalmente, una descripción del espacio en el que está integrada. Así es que, como propone Lizarduikoa, el nombre de la casa puede actuar a modo de mapa, mostrando su ubicación. Según sea el nombre de una casa, podremos saber cómo acercarnos hacia ella una vez estemos en el entorno.
- . Vemos la casa como un ser viviente. Los nombres de las casas están en primera persona, y sus piezas las llamamos con partes de cuerpo (Labat)
- . Al presentarnos, no presentamos a nuestro yo, sino a nuestra casa, como vemos en otro lado con ejemplos.

En la socioeconomía vasca, como veremos más adelante, mantener la *Etxea* y su totalidad como tal era el objetivo de la familia, de generación en generación.

*'Sena', edo bizitzan zentzuzkoa eta berezkoa dena, etxearekiko eta bere sendia eta abiturarekiko ulertzen dugu*

*Senak* jokaera, adimena, adikortasuna, instintua, zaletasuna, etab. adierazten ditu, eta hitz aberatsa ei da edukietan eta eratorrietan. Eta horrela *Senide*'rekin. Senideek *Sentitzeko Sentzun* eta *Sentikera* berezia dutela pentsa daiteke. Eta hortik ere *Sentzun* > *Zentzu* eratorriak ere (baliteke ere latinak 'sensus' hitza hortik hartu izana).

## AMATASUNA ETA EMETASUNA

Munduikuskeraz ez mendebaldarretan konstante bat da existentziak eta bere izaki guztiek alde aktibo edo 'gizonezko' bat dutela, eta alde sortzaile edo 'emakumezko' bat.

Existentzia alde batetik zein bestetik ikus daiteke. Eta argi dago zein den Euskal kulturak egindako hautua.

*Amatasuna eta emetasuna, Amalur eta Etxearen gorputze gisa, bizitza ikusteko gakoak da suretzat.*

Euskal Herriaz kanpoko antropologoak gehien harritu dituen euskal gizartearen berezitasuna, ziur asko, emakumeari emandako garrantzia izan da; beste gizarteekiko kontsideratzen badugu behintzat.

Mitologian oso nabaria da. Mari forma desberdinetan erakusten zaigu, baina oro har andrazko energia edo andra gisa gogoratzen dugu. Kontuan har osagai maskulinoak ere barne hartzen dituela (Maju edo Sugaar, aharia...). Aldiz, mito indoeuoparretan idolo maskulinoa da eredu, emakumeak izaki desberdinak dira, eta idolo maskulinoen azpian daude ia beti.

Euskeraren egiturak ere, inguruko hizkuntzenak ez bezala, *parekidetasun desberdindua baina berdinkoia* esleitzen die andre nahiz gizonari: hika tratamenduan, senidetasuna izendatzean, etab. Andreak ez dira sartzen gizonek definituriko genero orokorrean.

Euskal kulturaz eta historian, mitologiatik eta hizkuntzatik haratago, andereen agerpena oso azpimarratua da.

*. La 'Sena', lo que en la vida es licito y lógico, lo vivimos en relación a la etxea o casa y a su familia y tradición amplia*

*Sena* indica comportamiento, inteligencia, adicción, instinto, pasión, etc. Se antoja palabra rica en contenido y derivados. Y así con *Senide* o 'pariente'. Parece intuitivo que los *senides* tienen una *sentikera* o 'sentimiento' especial para *sentitu* o 'sentir' con *Sentzun* o 'sentido común'. *De ahí parece Sentzun* > *Zentzu* (el latino 'sensus' puede que provenga de ahí).

## . MATERNIDAD Y FEMINEIDAD

En las cosmovisiones no occidentales es una constante que la existencia y todos sus seres albergan una parte activa o 'masculina', y otra creadora o 'femenina'.

La existencia puede interpretarse desde un lado o desde el otro. Y está claro el que ha elegido la cultura vasca.

*. Madre y mujer, como corporización de Etxea y de Amalur, es para nosotros la vertiente por la que entender la vida*

La singularidad de la sociedad vasca que más sorprende a los antropólogos de fuera del País Vasco, parece ser, con bastante seguridad, la importancia y presencia de la mujer; al menos, en comparación con otras sociedades.

En la mitología es muy obvio. Mari se presenta como mujer. E incluye los componentes masculinos dentro de su esfera (Maju o Sugaar o gran serpiente macho, el macho cabrío...). Por el contrario, en los mitos indoeuropeos, el modelo es un ídolo masculino, las mujeres son criaturas diferentes, y casi siempre están bajo esos hombres-ídolo.

La estructura de la lengua vasca, a diferencia de las lenguas circundantes, asigna una paridad distinta pero equitativa tanto a mujeres como a hombres: tratamiento de hika, denominación de parentescos, etc. Las mujeres no entran en el género global definido por lo masculino.

En la cultura e historia vascas, más allá de la mitología y la lengua, la presencia de las mujeres también está muy subrayada. Algunos de los remanentes de esta

Erabakimen honen aztarna batzuk egun arte iraun dute. Adibide batzuk:

- . Batzarretan etxea ordezkatzeko bazuen andreak, hitzez eta bozkaz.
- . Bizitza-aldiaz ondorengo aurrean ere, emakumeak zuen ahotsa eta ordezkapena, adibidez, elizako sepulturaz arduratzea.
- . Jendarte lanetan ere agerpena parez parekoa zen sarri. Laia eta laiaketa oraintsu arte bizi izan direnari esker, gizonezkoen eta andrazkoen auzolan lerro luzeak erakusten dituzten argazkiak jaso dira.
- . Baseri askotan oraindik mantentzen da egunaren hasieran etxeandreak erabakitzea zer eta nola egingo den egunaren zehar.
- . Matrilinealitateak ama-ildoko oinordetza adierazten zuen. Ondorengotzarako lehentasuna amaren senitartekoek dute (emakumezko zein gizonezko izan). Besterik adierazi ezean, jarraitzen zen ildoak ze, batez ere Trentoko Kontziliararte.
- . Matrilokaltasuna ere, besterik adierazi ezean, jarraituriko araua zela ematen du. Hots, senarra emaztearen etxera aldatzen zen (Matrilinealan edo amaren ildoko oinordetzan eman daitekeen ñabardura bat da).
- . Adibide gehiagotarako eta argudioetarako, ikus M. Carmen Basterretxearen birpasa Euskal Herria, Kultura Matrilineala lanean.
- . Agerpen historiko hauei jarraiki, ziur asko, egungo Euskal sendietan atzerriko sendietan baino gehiago ematen da emazteak senarraren soldata hartzea, kudeatzea, eta senarrari bere gastuetarako soberakinak besterik ez itzultzea.

Oro har, gure etxeetako kudeaketan eta ordezkartzan, euskal andreak inguruko herrietan baino agerpen eta erabakimen gehiago izan duela argi dago. Eta hein baten mantentzen duela ematen du.

**Euskal matriarkalismoari buruzko eztabaidan, akaso hau ez zen eman era absolutuan, baina hein handian eman zenik ukagaitza da.**

Emakumearen indarra euskal gizartean hain zen nabaria, *matriarkalismo* hitza eman zaiola. Baina Euskal matriarkalismoari buruz eztabaida gogorra da gaur egun.

Zenbait jarrera feministek ez dute oso gogoko ideia hori. Gizonen zapalketa historikoa ezesten duelakoan, akaso, zera azpimarratzen dute, matriarkatua inoiz ez dela esistitu diote. Beste jarrera batzuk ez dira hain gogorrak. Akaso era absolutuan ez dela esistitu onartu lezakete, baina bai hein handian, eta estimatu beharreko formetan.

capacidad de decisión han pervivido hasta la actualidad.

- . En los Batzarres la mujer podía para representar a la casa con voz y voto.
áreas como la lingüística y la genética. La historia y cultura de Euskal Herria debe ser un gran río con muchos afluentes, y Juan Inazio Hartsuaga, quien da mucho peso al afluente megalítico, también asume lo siguiente:

Desde el inicio del Paleolítico y hasta que los pueblos indoeuropeos llegaron hace unos tres mil años, tenemos valores básicos que han formado consistentemente la personalidad vasca (Hartsuaga, 2016)

Dos cosas son indiscutibles, y otras discutibles:

- a) El refugio paleolítico al oeste de los Pirineos, durante la última glaciación, fue el más poblado de los tres grandes refugios que hubo en Europa. Durante este período, se creó la cultura magdalenien, que dejó la mayor parte de los restos más artísticos y creativos del mundo.
- b) La población que vivía en este refugio, cuando se retiraron los hielos, se extendió hacia Europa y, al menos, se estableció en Europa Occidental (Oppenheimer, 2007).
- c) Estas personas tenían 'cultura vasconica' y hablaban 'lenguas vasconicas'; entre otros, según las huellas lingüísticas referidas a los cursos de agua derrames de agua (Hamel & Vennemann, 2003; Vennemann, 2005).
- d) Los vascos actuales pueden interpretarse como descendientes de esta cultura paleolítica, por la frecuencia de algunos marcadores genéticos, ritos (por ejemplo, Hartza, vid. Frank, 2008) o restos lingüísticos (por ejemplo, el prefijo haitz- de aizkora y otras herramientas cortantes, Rentería-Uriarte, 2015).

En cualquier caso, la sensación de pertenecer a una etnia y de hablar una lengua de origen paleolítico está bastante extendida entre los vascos actuales. Obviamente, el resto de europeos también tienen diversas raíces paleolíticas; por ejemplo, los sardos de Cerdeña tienen mayor porcentaje de linaje de esta época \_\_\_\_\_. Pero la concentración de elementos paleolíticos persistentes en el País Vasco parece ser la más intensa en la Europa actual.

De esta manera, la influencia de tantos millones de esta civilización con tantos milenios encima ha sido profunda y duradera en la simbología e idiosincrasia vascas. En parte, porque los celtas llegaron tarde. Pero parece haber sobrevivido esencialmente hasta

<p>mendera arte iraun duela ematen du, eta zenbait aztarnekin gaur egun arte.</p>	<p>principios del siglo XVI, permaneciendo diversos restos incluso hasta hoy día</p>
<p><b>4. EUSKALSENDUNAK</b></p>	<p><b>. 4. LOS EUSKALSENDUNAK</b></p>
<p><b><i>EUSKALSENDUNA EUSKAL SENA ONARTZEN ETA PRAKTIKATZEN DUENA DA, BAI KONTZEPTUALKI ETA BAI BIZITZAN ETA ESPERIENZIETAN.</i></b></p> <p><b>Euskalsenduna euskal sena onartzen eta praktikatzen duena da.</b></p> <p><i>Euskalsenduna euskal sena onartzen eta praktikatzen duena da, ‘euskaldun’aren pareko definizioari jarraiki.</i></p> <p><b>Nola arakatu eta praktikatu Euskal Sena?</b></p> <p>Norbanako mailan, euskal sena bizibarritu gura dauanak irekia dauka bidea. Euskeran, mitologian eta beste kultur espresioetan mantentzen diran gakoak ezagutu eta landu daitezke, alkimista moduan, bere baitan hazi eta loratu daitezke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Maila kontzeptualean edo intelektualean, izaki guztien baitan bardintasuna eta batasuna ulertuz.</li> <li>. Bizitza edo esperientzia mailan, sorgiñek landutako metodoaren bidez: gure pertzepzioak eta ekimenak bardintasuna eta batura gauzatera eroran, hasiera batetan, eta pertsona batzuentzat, droga naturalak hasieran lagungarriak ala beharrezkoak izan daitezkeelarik.</li> </ul> <p>Kontzeptuen ulerpenari buruz, antzinako herrietan <i>Sena</i> mantentzeko eta igortzeko modurik garrantzitsuena ez da izan era idatzia. Antzinako gizarteetan, mitologiaren bidez igortzen zen belaunaldiz belaunaldi, batez ere. Gizarte batzuetan transmisio bide hori galdua dago, baina hizkuntza, mitologia, ohiturak eta erakundearen bidez nahikotxo antzeman dezakegu arbasoengandik oinordetzan harturiko euskal sena. Horietan izan da fosilizatua.</p> <p>Esperientziaren mailan, bide sekretua izan da, jazarpenengatik, eta oso neketsua eta zaila, isekagarria izan gabe hitzez adierazteko zailtasunak dituena. Interesa baduzu, jarri harremanetan dokumentu honen arduradunarekin.</p>	<p><b>. <i>EUSKALSENDUN ES QUIEN ACEPTA Y PRACTICA LA EUSKAL SENA, TANTO A NIVEL CONCEPTUAL COMO DE VIDA Y EXPERIENCIAS.</i></b></p> <p><b>. Euskalsendun es quien acepta y practica la euskal sena.</b></p> <p><i>Euskalsendun es quien acepta y practica la euskal sena, de acuerdo con la definición pareja a la de ‘euskaldun’.</i></p> <p><b>. <i>¿Cómo explorar y practicar la Euskal Sena colectivamente?</i></b></p> <p>A nivel individual, quien busque revitalizar la <i>Euskal Sena</i>, tiene el camino abierto. Puede conocer y practicar las claves escondidas en el euskera, la mitología y otras expresiones de la cultura, a modo de alquimista, para hacerlas crecer en su interior.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>A nivel conceptual o intelectual, entendiendo la igualdad y la unidad de todas las seres.</li> <li>A nivel vivencial o experiencial, practicando el método desarrollado por las sorgiñas: llevar nuestras percepciones e iniciativas a plasmar y materializar esa igualdad y unidad, siendo que al comienzo, para algunas personas, pueden ser útiles o necesarios las drogas naturales.</li> </ul> <p>Sobre el nivel conceptual, en las sociedades antiguas, la forma más importante de mantener y transmitir el genio de un pueblo no era de forma escrita. Se transmitía ente generaciones, principalmente, a través de la mitología. En algunas sociedades, esta vía de transmisión se ha perdido, pero podemos hacernos una buena idea de cuál es el Ser o Genio Vasco heredado de nuestros antepasados atendiendo al euskera, a la mitología vasca, a las costumbres y a las instituciones históricas vascas. Es allí donde ha quedado fosilizado.</p> <p>Sobre el nivel vivencial, ha acostumbrado a ser una vía secreta, por lo perseguida, y muy ardua, difícil de expresar en palabras sin caer en lo ridiculizable. Si estás interesad@, ponte en contacto con el responsable de este documento.</p>

## **Euskal Sena jendartean auzolanen bidez arakatzea eta praktikatzeko da konsistenteena.**

Jendartean euskal senaren gakoak lantzeko eta eraberritzeko, sen horrekiko era leialean, auzolanak dira bidea.

Kontzeptualki, euskal sena arakatu; hots, aurrekoak ikertuz. *Euskal Sena Taldea* gure baloreak eta beraien axiologia, idiosinkrasia eta komunitate espiritua berreskuratzeko osatu da, geroarako gida izatearen helburuarekin.

Bizi mailan, euskal sena zuzenean praktikatzeko auzolanak dira aukera. Esate baterako, antziñako sorgiñen eta jaien erak bizibarritzeko taldeak eratuz.

## **Euskalsendun militanteak herria eta kultura Euskal Senaren gainean berbizitzen laguntzeko konpromezua hartzen duena da.**

*Euskalsendun militantea* herria eta kultura *Euskal Senaren* gainean berbizitzen laguntzeko konpromezua hartzen duena da.

## **Euskalsendun militanteak Euskal Senari herriaren motore gisa duen garrantzia aitortzen dio.**

Auzolankideen artean izan da *Euskal Sena* Euskal Herriko Historiaren benetako motorea izan dela iradoki duena.

Ez dago lekuz kanpo. Kultura beste herri baten aldagaiekiko, eta baita kulturaren barneko aldagai batzuk besteekiko ere, erlazioak ugari eta aldakorak dituzte. Arrazoiak eta eraginak baino, beraien artean, atzeraelikadurak dira. Erlazioak baino, korrelatoak dira. Aldaketa soilak baino, prozesu konplexuak. Beraz, aldagai sare konplexu bat interpretatzeko, zilegi da aldagai konkretu baten ikuspuntutik egitea.

Euskal Herriak Historiako fase desberdinetan erakutsi duen Erresistentzia, kontzienteki edo inkontzienteki, Euskal Sena eta Kultur Eredua defendatzeko eta babesteko izan da. Herri honek sortu eta mantendu dituen erakunde desberdinak gauzatzeko ezinbestekoa izan zela esateak zentzuzkoa dirudi.

## **. Explorar y practicar la *Euskal Sena* colectivamente en auzolan es lo consistente.**

Para cultivar y revitalizar la *Euskal Sena*, de manera coherente y fiel a ella misma, los *auzolan* son el camino.

Conceptualmente, investigado la *euskal sena*. *Euskal Sena Taldea* se conjura en auzolan para recuperar nuestros valores y su axiología, la idiosincrasia y el espíritu de comunidad, con el objetivo de convertirse en una guía de futuro.

A un nivel vital, grupos en auzolan para practicar la euskal sena son lo propio. Por ejemplo, grupos que renueven las formas de conocimiento y de diversión de las antiguas sorgiñak.

## **. Euskalsendun militante es quien se compromete a ayudar a revivir su pueblo y su cultura desde la Euskal Sena.**

*Euskalsendun militante* es quien se compromete a ayudar a revivir su pueblo y su cultura desde la *Euskal Sena*.

## **. El Euskalsendun militante acepta la importancia que tiene el *Ser o Genio Vasco* como motor del pueblo.**

Entre los auzolankidez no ha sido excepción quien ha sugerido que la *Euskal Sena* es la verdadera impulsora de la Historia del País Vasco.

No está fuera de lugar. La cultura respecto a las variables no estrictamente culturales, y también las variables culturales entre sí, tienen relaciones diversas y cambiantes. Más que causas y efectos, se dan entre ellas retroalimentaciones. Más que relaciones, se dan correlatos. Y más que meros cambios, complejos procesos. Por tanto, toda red compleja de relaciones puede interpretarse desde una variable concreta.

La Resistencia del Pueblo Vasco en diferentes etapas de su Historia hasta nuestros días habría sido, consciente ó inconscientemente, por defender y preservar dicho Ser o Genio Vasco, y su Modelo Cultural. Parece razonable decir que ha sido esencial para la creación y mantenimiento de diferentes instituciones históricas.



## **EUSKAL SENA ETA EUSKALSENDUNAK HEDATZEA ERRONKA BEREZIA DA.**

Euskalsenduntasuna berreskuratzeko eta bultzatzeko erronkak, arrisku larriekin eta zenbait abantailekin, handiak dira.

### **Euskal Senaren erakargarritasuna ezagutarazi behar dugu.**

Euskalduntasunak bizi duen minorizazioa gainditzeko, mundua ikusteko Euskal Senak darabiltzan 'betaurrekoak' erakargarriak eta iradokitzaileak direla erakutsi behar dugu.

Egungo Psikologian komunikazio egokia (eta jendarte bizitza hobea) izateko baikortasuna erabili behar dela nabarmentzen da. Euskerak eta Euskal Senak berez dakarkigute!

Naturaren zikloak eta Lur bizi-emailea halako intentsitatez ospatzen zuen andere-arauzko antzinako zibilizazio bat garaiotara berreskuratzea badaukagu, emakumearen ahalduzuearekin, eta hori jende askorentzat pitzikagarria da.

Bestalde, badirudi gaur egungo jendarte kontzientziatzen ari dela klima-aldaketaz, ingurugiroa pozoitzeaz, eta horien inguruko gerren injustiziaz, migrazio masiboen miseriaz. Naturarekiko antzinako begirunea eta empatia berreskuratzea erakargarria da kezka horiek dituzten jendeentzat.

Azkenik, ez ahaztu gaur egungo etapa kapitalista, hierarkiko arpilatzaile eta patriarkalari aurre egiten dion eta egin diezaiokeen sena dela euskal sena. Bere insumisio jarrera erakargarria da kezka sozial hauen kritikoentzat.

Laburki, Auzolanen, Batzarreen, Komunitateen eta Zuzenbide Piriniarraren *abkzp'* rekin bizitza pertsonala eta kolektiboa Burujabea eraikitzea da erronka. Matrilineal kultur ereduaren gakoak eskainiz, soldatapeko enpleguaren, demokrazia ordezkari-tza engainagarriaren,

## **. POTENCIAR EL SER O GENIO VASCO Y LOS EUSKALSENDUNAK ES UN DESAFÍO ESPECIAL.**

Los desafíos para la recuperación y promoción de la Euskalsenduntasuna, con graves riesgos y algunas ventajas, son grandes.

### **. Debemos dar a conocer los atractivos de la *Euskal Sena*.**

Para superar la minorización actual de lo vasco, deberíamos mostrar cómo las 'gafas' que usa la *Euskal Sena* para ver el mundo son atractivas y sugerentes.

Por ejemplo, la Psicología moderna propone que es necesario utilizar una comunicación positiva para una vida mejor. Pues bien, hemos visto que las partículas *ba, bait*, etc., la indican de manera natural. *Esa virtud* el euskera y la Euskal Sena ya nos la traen por defecto...

Así, si quien habla en euskera es consciente de que lo está haciendo en un modo positivo, ya sólo porque el euskera tiene esa virtud, podrá sentirse mejor, y esto potenciar a su vez el uso del euskera.

Tenemos la posibilidad de recuperar para los tiempos actuales una antigua civilización que celebraba los ciclos naturales y la Tierra dadora de vida, con el empoderamiento de las mujeres, lo que es atractivo para muchas personas.

Por otro lado, parece que la sociedad actual está tomando conciencia del cambio climático, del envenenamiento ambiental y de las injusticias, guerras, miseria y migraciones masivas derivadas. La recuperación del antiguo respeto y empatía hacia la Naturaleza es atractiva para las personas con estas inquietudes.

Por último, no hay que olvidar que la etapa actual es de saqueo capitalista, jerárquico y patriarcal. Y a eso se enfrenta la *Euskal Sena*. Su actitud de insumisión es atractiva para los críticos con estas preocupaciones.

En suma, se trata de construir una vida personal y colectiva burujabe con el abcd de los auzolan, batzarres, comunales y derecho pirenaico. Ofreciendo las claves del modelo cultural matrilineal para superar la vida industrial del empleo asalariado, la

eta kapitalismoa alienantearen bizitza industrialia gainditzeko.

**Amatasuna eta emetasuna berreskuratzea garrantzitsua litzazuke, andra zein gizon izanik.**

Existentziak eta bere izaki guztiek alde aktibo edo 'gizonezko' bat, eta alde sortzaile edo 'emakumezko' bat dutela ikusi dugu. Eta gure espeziean ere denok, gizon zein emakume, ditugu alderdi biak. Eratorritakoak zuzentarauak zuzenekoak eta logikoak dira, nahiz eta harrigarria diruditen.

Gure existentziaren amatasun eta emetasun aldeak berreskuratzea da erronka. Bai kanpoan, gizartean, eta bai barnean, gure izaeretan. Baina bien arteko erlazioa ahaztu gabe. *Atsolorraren* berreskuratzearen baitan, adibidez, komunitate osoa umeez arduratzea dago. Emakume zein gizon, beraz.

Edonola, amatasun eta emetasun aldeak gure baitan sakontzea eta hedatzea da jendartea baino aurreragoko giltza. Zentzu honetan, gakoa ez da gizartea, pertsona edo norbanakoa baizik. Andra zein gizonarentzat balio du horrek; andreok zein gizonok dugu erronka hemen, ere.

Gure *ama* eta *eme* aldeak barnean haztea dugu erronka hori. Hots, gure emozio sormena, sentikortasuna, maitasun ahalmena, eta sendiari eta inguruneari zaintza ahalmena loraztea. Hierarkiarik gabe eta botere sentipen eta asmorik gabe.

Koska orokorra ez da emakumeek gizonen botere berdina lortzea gizartean, hain onartua dugun bezala. Horri garrantzia kendu gabe, jakina. Baina benetako koska da, *Euskal Sen* honi jarraiki, 'barneago', 'honantzago' dago. Gizonak *emakumetu* eta *amatu* daitezzen da zera. Hots, gizonak *sentikorra* egin, *maitale* egin, beraien ingurunearen eta sendiaren *zaintzaile* egin, eta zentzu emozional eta gizakozko hauetan, *sortzaile* egin.

Gizona *amatu* eta *ematu* loratzen den heinean, emakumeen ustiaketa amaituko da, eta andreok ez dute izango zertan 'berdintasun' sozial batengatik borrokatu, eta zertan 'botere' bat lortu, azken baten kontzeptu patriarkala dena. Emetasuna berez emango da, era espontaneoan eta naturalean, hasierako erreferentzia gizaki

democracia representativa engañosa y el capitalismo alienante.

**. Recuperar nuestra esencia de madre y mujer es algo importante, incluso para los hombres.**

Hemos visto que la existencia y todos sus seres albergan una parte activa o 'masculina', y otra creadora o 'femenina'. Y también en nuestra especie tenemos todas ambas facetas, tanto los hombres como las mujeres. Las pautas personales derivadas son directas y lógicas, aunque parezcan chocantes.

El desafío, sin duda, es la recuperación de las vertientes de maternidad y femineidad de nuestra cultura. Tanto fuera de nosotras, en la sociedad, como en nuestro interior. En la recuperación del *Atsolorra*, por ejemplo, subyace que toda la comunidad sea responsable de la atención a la gente más joven. Tanto mujeres como hombres, por tanto.

En todo caso, recuperar y extender las vertientes de maternidad y femineidad en nuestro interior, antes de considerar una extensión en el entorno, es la verdadera llave. En este sentido, la clave no es la sociedad, sino la propia persona o individuo. Y esto vale tanto hombres como para mujeres; es un desafío para todas las personas, también.

Se trata de hacer crecer en nuestro interior esa vertiente de *ama* o madre, y de *eme* o femineidad. Es decir, hacer florecer nuestra creatividad emocional, sensibilidad, capacidad de amar y capacidad de ofrecer cuidados a familia y entorno. Sin jerarquías ni sensación o deseos de poder.

La clave general no estriba en que las mujeres consigan el mismo poder que los hombres en la sociedad, como solemos admitir demasiado frecuentemente. Sin quitarle su importancia obvia, por supuesto. Pero la verdadera clave, según la *Euskal Sena*, está un poco 'más acá', más en el interior. Hacer que los hombres se hagan 'más madres' y tengan más capacidad de amar; este es el asunto. Hacer a los hombres más *sensibles*, más *amorosos*, más *preocupados* y *cuidadores* de su familia y de su entorno y, en este sentido, hacerlos más *emocionalmente creativos*.

A medida que el hombre se vuelva más *ama* o 'enmadrecido energéticamente', y más *eme* o 'femineizado energéticamente', la explotación de las mujeres terminará, y las mujeres no tendrán que luchar por ninguna 'igualdad social', ni por ningún 'poder', lo que en realidad es un concepto patriarcal. La

bezela dugun emakume aldeetara biratu delako guztiongan.

Bidea hasteko moduak anitzak dira, eta guztitik dago ikasteko. Emakumeen kasuan, esate baterako, Mónica Felipe Larralde-k *Cuerpo de Mujer, Reconectar con el útero* delakoan emakumeek bere umetokian sentsibilizatzea proposatzen du, emakumezko izaera kontzientziatu eta berreskuratzeko. Bai norbanako eta bai jendarte mailan *burujabe* izendatuko genuke, apuntatu bezala.

### **Euskarak Euskal Sena garraiatu du mendez mende, eta horrela iraun beharko.**

Azken belaunaldietan euskarak lehentasun nabaerrena hartu du euskalduntasunean.

Hizkuntzak 'aztarna eraldatzaileak' dira. Batetik, euren sakoneko filosofia dakartzate beren egiturari; iraganeko kultura eta jakintzak iltzaturik dakarzkigute. Idatzirik gabeko ohitura duten herrietan hau garrantzitsuagoa da oraindik ere, antzinako erlijioa, filosofia, mitoa, zientzia, etab. etzelako idatzi. Horiek gordetzeko eta igortzeko euskarria hizkuntza bera izan da.

Bestetik, hizkuntzek egungo hizlarien izaeran eragina dute, eraldatzen gaituzte. Arbasoen pentsakerek eta munduikuskerak hizkuntza itxuratu zuten, esan bezala. Eta, beraz, oinordetzan hartu digun hizkuntzarekin. Baina honek gure arretak eta pertzepzioak bideratzen ditu gaur egun. Adibide ezaguna da saamiak (eta ez inuitak) adibidea. Saamiak ondo ikasten badugu, elurraren berrogeinaka izen barneratu ditzakegu. Eta horrek gure arreta eta pertzepzioak edurraren egoera eta prozesu desberdinetaz jabetzeko gehiago gaituko gaitu.

Euskara, mendeetan zehar, Euskal Senaren kultur eredia garraiatu duen ibilgailu gisa irudikatu dezakegu, zentzu honetan. Auzolankide batzuen arabera, Euskal Sena hondoratzen ari da euskara barik.

Beste batzuek, ordea, kulturako elementu ez esentzialak gehiegi baloratu direla uste dute, hala nola, hizkuntza eta lurraldetasuna. Ulibarrenak \_\_\_\_\_, adibidez, Euskal Senako alde humanistak lehenesten ditu, duela hamarkadak -ala gizaldiak- euskara galdua den Euskal

feminidad tomará presencia de forma espontánea y natural, porque la referencia inicial habrá girado a lo materno y femenino en todas las personas.

Las formas de iniciar el camino son variadas, y de todo se puede aprender. En el caso de las mujeres, por ejemplo, Mónica Felipe Larralde propone en *Cuerpo de Mujer, Reconectar con el útero* que las mujeres partan de una concienciación de su útero para extenderlo a una concientización y autoconstrucción de su ser femenino. Lo llamaríamos ser *burujabe* a nivel personal y social, como se ha apuntado.

### **. El Euskera lleva transportando la Euskal Sena por siglos, y así debe seguir siendo.**

Para las últimas generaciones, la lengua vasca ha adquirido prioridad en el sentimiento identitario de vasquidad.

Las lenguas son '*fósiles transformadores*'. Por un lado, tienen una filosofía fosilizada y clavada en su estructura; nos traen al presente la cultura y los conocimientos del pasado. En pueblos sin tradición escrita, esto es aún más importante, porque su religión antigua, filosofía, mitos, ciencia, etc. no se escribieron. El soporte para almacenarlos y transmitirlos ha sido, así, el propio idioma en que se formularon.

Por otro lado, los idiomas afectan la naturaleza de la gente hablante actual, nos transforman. El pensamiento de los antepasados y el mundo de las lenguas han dado forma al idioma y recibimos esta herencia en él, y esta implica marcos mentales que centran nuestras acciones y percepciones en el presente. Un ejemplo de los saami (y no de los inuits) es popular. Si aprendemos bien saami, podremos interiorizar unos 40 nombres referidos a la nieve, a sus estados y sucesos. Y ello hará que nuestra atención y nuestras percepciones estén más conscientes y entrenados para percibir de los estados y procesos de la nieve.

Puede visualizarse, en este sentido, que el euskara ha sido como un vehículo que, a lo largo de siglos, ha ido transportando en su seno el modelo cultural de la Euskal Sena. Según algunos auzolankides, la Euskal Sena se está hundiendo sin el euskera.

Para otros, en cambio, se han puesto en demasiado valor elementos de cultura no esenciales como el idioma y la territorialidad. Ulibarrena, por ejemplo, atiende más a las cuestiones humanísticas de la *Euskal Sena*, mostrando que se mantienen en buena forma en

Herriko talde eta eremuetan ondo moldatzen dela erakutsiz.

Edonola, auzolan partaide batzuek komentatu dute zein harrigarri gertatu zitzairen Euskarari buruzko topaguneetan euskararen esanahi esanguratsuak eta beraiekin erlazionaturiko jatorri etimologikoak desestaltzeko hartzen diren ahaleginak. *Euskal Sena* agerian jartzeko ekimenak dira, beste helburuen artean.

### **Euskal identitatea berreskuratzea ezinbestekoa da.**

*Euskal Sena* gure identitatea motibatu dezake desiragarria sentitu dezakeen edonoretzat, ala euskaldun izatearen funtsa gisa ulertzen duen edonoretzat. Eta, aldi berean, *Euskal Sena*ekin ezin izango da ezer ere ez egin, aurretik hori indartu gabe.

Ezinbestekoa da herri *identitatea eta nortasuna* lantzea, horiedn kontzientzia. Euskal Herri gisa garena bizi, sentitu, baieztatu, komunikatu.

Indoeuropar zibilizazioak gudan duen eragina ixila baina hiltzailea da. Ez dugu antzematen. XIX. mendean euskal identitatea hain zegoen akiturik, Antoine de Abadie bezalako kontzientziadunek gure autoestimua indartzeko Euskal Jaiak behar izan zituztela. Ba antzeko garaiak bizitzen ari gara! *Euskal Senaren* hondarrak erabat desagertzen ari dira.

Azken 100 urteotan *nazio kontzientzia* eta erabakitze eskubidearen aldarria hedatu egin da populazio zati handi batean. Era berean, *elkartasun internazionalista* sortu da, herri zapalduetako, migratzaileetako, etab. Hizkuntza eta kultur aniztasuna aberasgarria da, ez da gure arazoa. Gaztelaren eta frantsesaren erabateko nagusitasuna da arazoa.

*Lurraldetasuna* ere garrantzitsua da auzolankideentzat. Herriak bere lurralderako eskubidea du. Zatikatu eta galdua ez izateko eskubidea.

*Euskera* gure Euskal Senaren identifikatzaile saihestezina dirudi. Euskara ikasteak eta zabaltzeak euskal identitate kulturala oinarritzkoa eta iraunkorra izatea dakar. Gaur egun, jende askok euskara hitz egiten du eta ikasten du, ez ohitura gisa, herriko identitatearen defentsarako egiten den benetako ekarpen gisa baizik. Batzuetan “euskararik gabe independentziarik ez dago” esatera heldu da.

colectivos y zonas de Euskal Herria donde se ha perdido el euskera.

En cualquier caso, algunos de los participantes en el auzolan han comentado lo asombroso de encontrarse, en algunos Encuentros sobre el euskera, con tremendos esfuerzos por desenmarañar los significados representativos y los orígenes etimológicos relacionados del euskera. Son iniciativas para desvelar la *Euskal Sena*, entre otros objetivos.

### **. Recuperar la identidad euskaldun es inexcusable.**

La *Euskal Sena* puede motivar a la identidad vasca a cualquiera que la acepte como deseable, o que la entienda como propia de la gente vasca. Y a su vez, podría decirse que nada puede hacerse con la *Euskal Sena* si antes no se fortalece esa identidad.

Es imprescindible trabajar la *identidad* cultural y conciencia de pueblo: vivir, sentir, afirmar, comunicar lo que somos como Euskal Herria:

La influencia de la civilización indoeuropea es silenciosa, pero letal. No la detectamos. En el siglo XIX, la identidad vasca estaba tan ahíta que vanguardias conscientes como la de Antoine de Abadie tuvieron que potenciar las Fiestas Eúskaras para levantar nuestra autoestima de pueblo. ¡Pues nos hallamos en una época parecida! Los vestigios de la *Euskal Sena* van desapareciendo sin remisión.

En los últimos 100 años, la *conciencia nacional* y la reivindicación de la toma de decisiones se ha extendido a buena parte de la población. Del mismo modo, se ha fortalecido la *solidaridad internazionalista* con los oprimidos, los migrantes, etc. La diversidad lingüística y cultural es gratificante, no es nuestro problema. El problema es el dominio absoluto del castellano y del francés.

La *territorialidad* es también importante para los auzolankides. El país tiene derecho a su territorio. Derecho a no estar fragmentado y progresivamente perdido.

El *euskera* como identificador de nuestra ‘euskal sena’ parece ineludible. Aprender y extender el euskera, seguirá mateniéndolo como referente básica y permanente portador de la identidad cultural vasca. Actualmente muchas personas hablan y aprenden euskera, no como hábito o adquisición cultural, sino como una auténtica aportación a la lucha por la defensa la identidad del País. Se llega a decir que “no

Euskararentzat baliagarria den guztia Euskal Senarentzat ere baliagarria da.

Era guztietako jarduera kolektiboak eta herri mugimenduak, *komunitate sena bizirik* dagoen seinale. Bada sasoi onean dagoen kultur arlorik ere, adibidez bertsolaritza. Eta oso garrantzitsua, euskararen aldeko herri ekimena. Gainera, era guztietako errebindikazio eta borrokak *intsumisio sena* bizirik dagoen seinale dira. Adibidez, *Emakumearen ahalduntze* mugimendu hazkorra, indarrean dagoen patriarkalismo eta matxismoaren aurrez aurre.

**Auzolanen sena berreskuratzea, eta ez bakarrik auzolanak, ez da ahaztekoa.**

Ekimen hiritarretan ere, tokiko autogobernua edo Auzokrazia krisi sakonean da. Odon Ulibarrenak gogorarazten digu nola, hamar urte baino gehiagotan Berriobeiti-Berrioplanoko Batzarrean parte hartzean, Auzoko Gobernu sistemaren gainbeheraz ohartu zela. Arbasoen ondarea izateagatik errespetatua zen, baina iraganeko gauza besterik etzen kontsideratzen.

Beste auzolankide batzuen arabera, azkenotan Eusko Jaurlaritzak bere propagandarako bahitu eta desitxuratu duen arren, benetako auzolanak ondo funtzionatzen du oraindik Euskal Herrian, lehengokoez bestelako eremuetan eta moduetan, jakina. Etxearen euskal kontzeptua kasik desagertu ondoren, auzoak eta auzolanak sekulako potentzialtasuna dute gurean. Horiek biziberritzean datza gakoa.

**Euskal Zuzenbide Zibilaren hondarrak berreskuratu, duela hiru urte bertan behera utziak.**

Berriki, eta Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik gainera, Zuzenbide Piriniarrean berezkoa den sendi eta etxe lehentasunak ezabatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide zibiletik.

Ezin da euskalsendun koherentea izan, honek atzera egin dezan eskatu gabe.

**Oro har, Euskalsendun gisa berpiztu eta gozatuko dugu.**

Munduikuskerak batek eta bere bizitzarekiko jokamoldeek guztioi eragiten digute: pertsonei, enpresei, erakundeei, lurraldeei, eta erakundeei. Bi aukera ditugu: zer gertatzen

hay independencia posible sin euskera”. Todo lo válido para el euskera es válido para la *Euskal Sena*.

Actividades colectivas de todo tipo y movimientos populares mantienen vivo el *sentido de comunidad*. También hay expresiones con muy buena salud, como la *bertsolaritza*. Y muy importante, las iniciativas populares por la lengua vasca. Además, todo tipo de demandas y luchas sociales son un signo de que la insumisión está viva. Por ejemplo, se da el creciente empoderamiento de las mujeres frente al patriarcado y el fascismo.

**. Recuperar la sena de los auzolanek, y no sólo los auzolanek, es algo que no debe descuidarse.**

En las iniciativas populares, también, el autogobierno vecinal o Auzokrazia están en profunda crisis. Odon Ulibarrena comenta que al pertenecer durante más de diez años al Concejo Abierto-Batzarre de Berriobeiti-Berrioplano, entre los años 1976-1986, constató el declive del Gobierno Vecinal. Por pertenecer al legado de los Antepasados era respetado, pero se consideraba poco menos que cosa del Pasado.

Según otros auzolankides, y aunque el gobierno vasco ha secuestrado y distorsionado el concepto para su propaganda de los últimos años, el auténtico auzolan todavía funciona en el País Vasco, aunque sea en otros campos y modos, por supuesto. Una vez casi desaparecido el concepto vasco de *Etxea*, los barrios y sus *auzolanek* tienen un tremendo potencial. En revivirlos está la clave.

**. Recuperar los restos de Derecho Civil vasco anulados hace tres años.**

Recientemente, y para colmo de mano del Partido Nacionalista Vasco, la priorización del tronco doméstico y familiar propio del Derecho Pirinaico ha sido eliminada del Derecho Civil de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No se puede ser un euskalsendun coherente sin exigir esta devolución.

**. En general, revitalizaremos y gozaremos como Euskalsendun'és.**

Las consecuencias de las cosmovisiones y de las actitudes ante la vida nos afectan a todas las personas, empresas, organizaciones, territorios, instituciones. Tenemos dos alternativas: ignorar lo que ocurre y

den baztertu eta korronteak eraman gaitzala, edo, aitzitik, korronteak gure alde joka dezan aurea hartu.

Euskarak ekarri digun antzinako munduikuskeran zaintzeak eta, zaindu bitartean, egungo garaietara moldatzeak, hil ala bizikoa dirudite. Bereziki, hizkuntzak ‘azterna eraldatzaileak’ direla esan dugu, daramatzaten sakoneko filosofiak baldintzatzen eta eraldatzen gaituztelako. Zein eragin mantenduko eta utziko diegun hurrengo belaunaldiei euskarari, beraz, gure erantzunkizuna osoa da.

Oro Har, euskal gizarteak, oro har, kristau aurreko eta indoeuropar aurreko zibilizazioa era progresiboan baztertu egin du, dela errepresioak horretara behartu duelako, ‘atsoen kontuak’ direlakoan. Oroitza hori berreskuratu behar da.

*Euskal Mitoaren transmisioa eten egin da, bere guneak (baserriko supazterra...) eta uneak (bertan egiten ziren lanak, arto eta indaba garautzea, txarribodak, ...) desagertu ahala. Supazterraren lekua telebistak hartu du eta, auzolan askoren ordean, norbanakoak ditugu makinekin.*

Halere, jatorrizko kulturaren txingarrak geratzen dira. Txingarron gainean erregai egokia ezarri eta su ederra iziotu da gakoa.

Identitatea, euskara eta lurraldearen gainean, *kulturaren funtsezko elementuak* zabaltzea da erronka.

Noraezean, euskaldunek milaka urteetako bidea biraurkitu nahi dutela ematen du. Eta *Euskalsendunen* bidea da hori.

Besterik gabe, lagunok. Antziña esaten genuen bezala, *gaizki esanak barkatu, zuek barik ez da.*

dejarnos llevar por la corriente, o, por el contrario, anticiparnos para que la corriente juegue a nuestro favor.

La preservación de la antigua cosmovisión vasca y su adaptación a los tiempos actuales, se antoja una cuestión de vida o muerte. Especialmente, hemos dicho que los idiomas son ‘fósiles transformativos’ porque moldean y transforman filosofías profundas. Qué influencia mantendremos y, por tanto, qué poder de cambio dejaremos en las próximas generaciones, es, por tanto, nuestra absoluta responsabilidad.

En general, la sociedad vasca ha ido rechazado de forma progresiva la civilización pre-indoeuropea y pre-cristiana, se le ha obligado a reprimir esa herencia, por ser ‘cuentos de vieja’. Pero debe recuperarse esa memoria.

La transmisión del *mito vasco* ha sido suspendida. Las áreas donde lo hacía (al lado del fuego en casa) y los momentos de reunión de los vecinos (el trabajo en común, el pelado del maíz, la *txarriboda*...) han desaparecido. Al lado del fuego de casa está ahora la televisión; y en vez del auzolan, trabajos individuales con máquinas.

Sin embargo, quedan brasas de la cultura original, como hemos visto. Se trata de alimentarlas bien y lograr revivirlas con fuerza.

Sobre la identidad, la lengua vasca y el territorio, difundir los *elementos esenciales de la cultura* será la tarea a realizar.

Las personas *Euskaldunas* buscan reencontrarse con su milenaria senda. Y esa es la de los *Euskalsendunak*.

Nada más, lagunok. Como se decía antes, *gaizki esanak barkatu, zuek barik ez da*. “Perdón por las cosas mal dichas, sin vosotros no hay nada”.

**ERASKINA: IKERKETA OINARRIAK**

**ANEXO.: BASES DE ESTUDIO**

Azterturiko hiru ataletan ikusi dugu *Euskal Sena* mundu koherente eta erabatekoa dakarrela, existentziaren galdera handiak eta gizabanako eta gizarte mailan nola jardun behar dugun erantzuten dituen. Orain, laburki, ataza hau burutzeko jarraitu ditugun kontzeptuak aipatuko ditugu.

En las tres secciones estudiadas hemos visto que la *Euskal Sena* implica una visión del mundo coherente y total, que da respuesta a las grandes preguntas de la existencia, y a cómo actuar a nivel individual y social. Ahondaremos ahora brevemente los conceptos de los que hemos partido en esta tarea.

## **HERRI BATEN SENA ETA EUSKAL SENA; KONTZEPTUAK**

Arestian esan dugu *sena* abereengan eta gizakiengan ageri dela, gizakiengan kulturala dela, eta euskaldunengan *euskal sena* dela. Zehatu dezagun guzti hori.

**Herri Sena herri batek gauzak ulertzeko duen berezko era da, bere munduikuskera eta jokamoldeak islatuz.**

*Sena* abereengan eta gizakiengan berezkoa da.

Eta joera horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, hizkuntzaren, sinismenen, errituen eta abarren bidez.

Norbanakoek, horrela, kultur 'sen' hau barneratu eta agertarazi ohi dute. Sarri, ohartu gabe.

Kultur Senaren ezaugarri desberdinak bi aldeetan zehaztu ditzakegu. Sintesi gorenean:

*Herri sena  
gauzak nolakoak diren ulertzeko berezko era zuzena da,  
herri baten partaide desberdinek komunean dutena.  
Zentzu horretan, Herri Izaera eta Munduikuskera  
islatzen du,  
kultur espresio desberdinetan antzeman daitekeena.*

Herri baten *Senak* munduikuskera bat dakar. Hor sartzen dira: gauzen zerizanaz uste dugun alde existentziala, kontzeptuen eta lojikaren alde arrazionala, eta sentipenen alde emozionala

- . *Existentziaren zerizanaz, funtsaz, helburuetaz, jatorriaz eta prozesuetaz uste duguna. Hots, gure izaerari eta munduaren izaerari buruz uste duguna. Gure 'alde existentziala', 'filosofikoa' ala, nahi bada, 'izpirituala' ere dei dezakegu.*
- . *Gauzak kontzeptuen bidez eta beraiek lotzen dituzten lojika legeen bidez nola ezagutzen ditugun. Gure 'adimen aldea' ala 'alde arrazionala' dei dezakegu.*
- . *Sentipenen bidez bizitza nola esperimendatzen dugun pertzepzio, sentsazio eta emozioen bidez. Mundua, aberria eta aberkideak sentitzeko moduak hemen dira ere. Gure 'alde emozionala' sartzen da.*

## **. SENA DE PUEBLO Y EUSKAL SENA; LOS CONCEPTOS**

**. Sena de un Pueblo es su forma natural y directa de saber cómo son las cosas, refleja su cosmovisión y actitudes .**

El instinto es inherente a los animales y al ser humano.

Y estas tendencias se transmiten de generación en generación a través de la lengua, de creencias, de ritos, etc.

Los individuos, así, incorporan y manifiestan este 'instinto' cultural. A menudo, sin darse cuenta.

Podemos determinar las diferentes características culturales de un instinto o genio determinado en dos vertientes. En síntesis máxima:

*Sena o 'instinto de pueblo' es  
la forma natural y directa de saber cómo son las cosas,  
compartida por las personas de un determinado pueblo.  
En ese sentido, refleja el Ser y Cosmovisión de un Pueblo,  
implícita en sus diferentes expresiones culturales.*

El *Ser o Genio* de un pueblo implica una determinada cosmovisión. Incluye como tal lo que creemos en la esencia de las cosas en una vertiente existencial, los conceptos y la lógica en una vertiente mental, y las sensaciones en una vertiente emocional.

- . *Lo que pensamos de la esencia de las cosas y de los procesos de la vida. Es, decir, lo que pensamos sobre nuestra naturaleza y la naturaleza del mundo. Es nuestro 'lado existencial', 'filosófico', o, si se quiere, 'espiritual'.*
- . *Cómo conocemos las cosas a través de los conceptos y las leyes lógicas que los vinculan. Podemos llamarlo nuestro lado 'mental' o 'racional'.*
- . *Cómo experimentamos la vida a través de las percepciones, sensaciones y emociones. Las formas de sentir el mundo, la patria y los compañeros en esa comunidad están aquí también. Es nuestro 'lado emocional'. AFEKTIBO*

Bizitzan hartu beharreko jokamoldeak *Herri Sen* baten beste alde dira, bestetik. Ingurunearekin eta aberkideekin harremanetan egoteko modu kolektiboa da sena. Komuna, dinamikoa eta irekia. Munduan egoteko eta bizitzan aritzeko modu bat da, beraz; hor 'egotekoa' eta 'egitekhoa' balio zehatz batzuen arabera, hots, axiologia bat.

Eta guzti hori kultur espresio desberdinetan antzeman daiteke: hizkuntzan, dantzetan, erakundeetan, gure egokitzeak/pertenencias igortzeko elementu gisa...

**Euskal Sena euskaldunek gauzak nolakoak diren ulertzeko duten berezko era da, beraien munduikuskera eta jokamoldeak islatuz.**

Aipaturiko zehaztasunen arabera,

*Euskal Sena euskaldunek gauzak nolakoak diren ulertzeko duten berezko era da, beraien munduikuskera eta jokamoldeak islatuz, kultur espresioetan atzeman daitezkeenak.*

Euskaldunok, kulturkide gisa, *Euskal Senaren* ñabardurak eta ezaugarriak barneratu ditugu ohartu gabe. *Euskal Sena* badugu, hein handiagoan ala txikiagoan.

~~Gehienok onartzen dugu, ala onartuko genuke galdetuak izanez gero, badela *Euskal Sena*.~~

***Senaren* euskal kontzeptua nondik datorren.**

*Sena* delakoaren kontzeptua metafora biologiko batetik dator, alegia, abereen erreklzio askotan erakusten duten berezko *senatik* edo *instintutik*. Gizakietan baliteke 'zerbait' hori, heinen batetan, biologikoki jaso izana, espezie gisa.

Behar materialak ditugu; adibidez, elikatu, jantzi edo etxea lortu. Eta horiek asetzeko eta naturaren erronkei aurre egiteko erantzunak eta gakoak senaz, berez, instintuz ditugu. Horietarako adimena, ekimena eta irudimena aldeak praktikan jartzen ditugu. Baina, maila horretan, antzeko sena dugu gizaki guztiok, antzeko erantzunak.

El *Genio* o *Ser* de un pueblo conlleva las actitudes a tomar en la vida, por otro lado. Es una forma colectiva de estar en contacto con los contextos vitales y el prójimo. Común, dinámico y abierto. Es una forma de estar en el mundo y de vivir; de 'estar' y de 'hacer' de acuerdo con unos valores determinados, es decir, una axiología.

Y todo esto puede advertirse en las diferentes expresiones culturales: idioma, danzas, instituciones...

**. Euskal Sena es la forma natural y directa de saber cómo son las cosas que tiene la gente vasca, reflejando su cosmovisión y las actitudes.**

Según las precisiones apuntadas,

*Euskal Sena, el Genio, Ser o Instinto Vasco, es la forma natural y directa de saber cómo son las cosas que tiene la gente vasca, reflejando su cosmovisión y las actitudes implícitas en su cultura.*

Como personas integrantes de la cultura vasca, hemos interiorizado la *Euskal Sena* sin darnos cuenta. Tenemos *Euskal Sena*, en mayor o menor grado.

~~La mayoría aceptamos, o aceptaríamos de ser indagados al respecto, que existe de facto ese *Euskal Sena*.~~

**. El origen del concepto vasco de *Sena*.**

El concepto de *Sena* vasco proviene de una metáfora biológica, es decir, del *instinto* intrínseco que muestran los animales en variadas reacciones. En los humanos, este 'algo' puede tener una parte biológica, como especie.

Tenemos necesidades materiales, como alimentarnos, vestirnos o construir un alojamiento. Y las claves para enfrentar y superar los desafíos de la naturaleza implicados parecemos tenerlos 'en sí', como por 'instinto'. Para ello, ponemos en práctica nuestras inteligencia, iniciativa e imaginación. Pero, a este nivel, todos los humanos compartimos muy parecidas respuestas, solemos tener un parecido instinto. Así,



Horrela, *Sen* mota hau, kultur talde desberdinetan, nahiko berdintsu eta bateragarri ematen da.

Baina gizakiak behar materialen asetzetik haratago doazen beharrak ere asetzen ditu. Adibidez, jendarteantolatu, ala musika egin eta dantzatu. Horiek asetzeko ere ematen du badugula sen bat berez, barrutik irtetzen zaiguna. Baina adimenak, ekimenak eta irudimenak hein handiagoan parte hartzen dutela ematen du, eta era askeagoetan. Horregatik, ukiezinagoa eta abstraktuagoa ematen duen *Sen* horretan, kultur talde desberdinek dituzten aldaerak gehiago antzematen dira.

Edonola, gizakion *Sena*, funtsean kulturala da. Oro ohar, behar eta desioen asetzean kultur bakoitzak baditu bere ukituak, bere ñabardura bereizgarriak, eta bere enfasi partikularrak. Alde batzuk areagotu, beste batzuk saritu, eta beste batzuk zigortzen ditu ere, nahiz eta *sen* hori ‘barrutik atera’ egiten zaigun espontaneoki, ‘horrela delako eta kitto’, kultur eraginik gabe.

Eta joera horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, hizkuntzaren, sinismenen, errituen eta abarren bidez. Norbanakoek, horrela, ezaugarri horiek barneratzen dituzte, sarri, ohartu gabe. Horri guztiari ere *sen*a deitzen zaio beraz, transmisio biologikoz baño igortze kulturalaz egin arren. *Kultur, Talde* edo *Herri Sena* deienezake.

## ZELAN EGITURATU EUSKAL SENA?

*Herri Sena* egituratzeko modu desberdinak daude. Eta herri bakoitzak emandako enfasi arabera, egon liteke ere ‘*Sena* desberdinak egituratzeko *sen* desberdinak’. Adibidez, Odon Ulibarrena (2003) honela banatzen du: *Gizabidea*, *Eskukotasuna* edo ‘Libertad Humanística’, *Burujabetasuna* edo ‘Conciencia etnohistórica de la Independencia’ eta *Auzokrazia*.

Herri baten kultur *Sena* alde desberdinetatik aztertu eta aurkezu daiteke. Gerora izari asko azalduko digun aukera aproposa, kultur senak bere baitan duen munduikuskeratik hastea da. Gida oso oinarritzakoa galdera existentzialak jarraitzea da: Nortzuk gara? Nondik gatoz? Nora goaz?

este tipo de ‘instinto’ se suele dar con expresiones parecidas en las diferentes culturas.

Pero los seres humanos también tenemos necesidades más allá de lo puramente material, como organizarnos socialmente, o tocar música y bailarla. Y parece que la puesta en de nuestra inteligencia, iniciativa e imaginación tiene más peso específico que ante las necesidades materiales. Por eso, este instinto que parece más intangible y abstracto tiene más diferencias entre culturas.

En todo caso, la *Sena* de los seres humanos es básicamente cultural. Cada cultura tiene sus tonos, sus matices distintivos y sus énfasis particulares en la satisfacción de necesidades y deseos. Algunos aspectos se motivan más, otros se recompensan más, y otros, también, se castigan más, aunque sintamos que este ‘genio’ o ‘instinto’ nos salga de dentro ‘espontáneamente’, ‘porque es así y punto’, sin influencias culturales.

Y estas tendencias se transmiten de generación en generación a través del lenguaje, de creencias, de ritos, etc. Los individuos, así, incorporan y manifiestan estas características, a menudo, sin darse cuenta. A todo ello también se le llama ‘genio’ o ‘instinto’ a pesar de que transmitirse más allá de mecanismos biológicos. Podríamos llamarlo un *Instinto, Ser o Genio Cultural, de Grupo* o de *Pueblo*. En euskera, se le denomina *Sena*.

## . ¿CÓMO ESTRUCTURAR LA EUSKAL SENA?

Hay diferentes maneras de estructurar el el Ser o Genio de un pueblo. Y de acuerdo con el énfasis dado por cada pueblo, también podría haber *genios* para estructurar un *Genio*. Por ejemplo, Odon Ulibarrena (2003) lo divide en: *Gizabidea* o sentido vasco de lo humano, Libertad Humanística, Conciencia soberana o ‘Conciencia Etnohistórica de la Independencia’, y *Auzokrazia*.

El Ser o Genio de un pueblo puede ser analizado y contrastado por cualquiera de sus diferentes partes. Una buena elección, que luego nos explicará muchas cosas, es comenzar desde su cosmovisión. Una guía básica, en ello, es seguir las preguntas existenciales: ¿Quiénes somos? ¿De dónde venimos? ¿Hacia dónde vamos?

Ildo horri jarraiki, gure senaren funtsa, norbanakoei jokamoldeak, eta jendarte erakundeak azalduko ditugu, beste arazo batzuez gain. Piska bat luzeago:

Hemen munduikuskera edo *weltanshauung* hartu dugu gidari. Beste gauzen artean, jendearen galdera orokor eta oinarrikoetatik zehatz eta pragmatikoenetara bideratzen gaituelako. Itaun hauek erantzun ditugu: Zer gara gu eta zer da mundua? Zein da bizitzaren funtsa, hots, nola kokatzen gara gu naturan? Nola jokatu jendartean, hots, nola eraikitzen dugu jendartea eta bizitza guk eta gutarrek?

Siguiendo ese hilo,, explicaremos la esencia de la *Euskal Sena*, sus directrices de comportamiento para los individuos, y las organizaciones colectivas vascas, además de otras cuestiones. Un poco más extenso:

Aquí hemos tomado como guía a la ‘visión del mundo’ o *weltanshauung*. Entre otras cosas, porque nos permite ir de las preguntas más generales y básicas del ser humano a las más concretas y pragmáticas. Hemos respondido las siguientes preguntas: ¿Qué somos y qué es el mundo? ¿Cuál es la esencia de la vida, a saber, cómo nos ubicamos en la naturaleza? ¿Cómo actuar en sociedad, es decir, cómo construimos la sociedad y la vida nosotros y los nuestros?